

Txosten honek EAEko
haurren eta nerabeen
ongizateari lotutako
datu garrantzitsuenei
buruzko hausnarketa
egitera gonbidatzen
du, dimentsio anitzeko
ikuspegitik...

Euskadiko haurren eta nerabeen errealitatea kopurutan

Txosten diagnostikoa 2016



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la red Bibliotekak del Gobierno Vasco: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia:

1.a, 2017ko uztaila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila

Internet:

www.euskadi.eus

Egilea:

edefundazioa

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:

Kabinetearen eta Komunikazio Zuzendaritza. Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila

aurki- bidea

Sarrera	5
Hurbilketa demografikoa	6
Familia	9
Osasuna	15
Hezkuntza	21
Ongizate materiala	29
Kultura, aisialdia eta denbora libre	34
Hautzaro zaugarria	39
Ingurunea	47
Laburpena: adierazle-panela	51

Sarrera

Eusko Jaurlaritzako Familia Politika eta Gizarte Garapeneko Zuzendaritzak hainbat ikerketa garatu izan ditu haur eta nerabeen arloan, kolektiboaren errealitateari buruzko ezagutza zabaltzeko eta ikuspegi ugariatik hainbat hurbilketa-saiakera egiteko.

Txosten diagnostiko honetan, EAEko haurren eta nerabeen errealitatearen azterketa orokorra egin dugu. Horretarako, eskuragarri dauden datu estatistikoaren artetik, haurren eta nerabeen eskubideen eta bizi-kalitatearen ikuspegitik haien ongizatea deskribatzeko eta aurreratuko adierazgarrienak direnak hartu ditugu.

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko 2005eko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak ezarritakoa eta Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmenak¹ ezarritakoa ere geure eginez, azterketa honetan kontuan hartu ditugun datuak 0 eta 17 urte arteko populazioarenak dira.

Txosten honetan azaldutako eta aipatutako datuek hausnarketarako bidea ematen dute, bereziki gaur egun garrantzitsuenak edo kritikoenak izan daitezkeen eta arreta gehien behar duten alderdien inguruan. Gainera, lagungarri izan daitezke aurrerapenak bistaratzeko zenbait arlori dagokionez: demografia, familia, osasuna eta sexualitatea, hezkuntza, ongizate materiala, kultura, aisialdia eta denbora libre, haurtzaro zaurgarria eta ingurunea.

Datu nagusiak hainbat desagregazioarekin batera datoz (sexuaren, adinaren eta abarren arabera). Horiek haurren eta nerabeen populazioaren moduko talde heterogeneoan batera dauden errealitate espezifikoak ezagutzera ematen laguntzen dute. Era berean, datu berrienak aurreko urteetako beste batzuekin osatu dira eta beste lurralde-eremu batzuetakoekin alderatu dira, azterketari behar adinako testuingurua emateko.

Txostenak bigarren mailako hainbat iturritako datuak biltzen ditu; irakurketa ez oztopatzeko, oinoharretan aipatzen dira.

Azkenik, nabarmendu beharrekoa da datu horiek EAEn haurren eta nerabeen errealitatea monitorizatzeko zehazki diseinatutako adierazleen sistemaren zati direla eta horren prestaketa-prozesua honen osagarria den beste txosten batean dago zehaztuta ("EAEn haurren eta nerabeen errealitatea jarraitzeko adierazle-sistema. 2016 bertsio berria"). Bigarren txosten horretan, gainera, sistema osatzen duten adierazle bakoitzaren datuen iturriekin eta bereizketekin lotuta zehaztutako informazioa ere kontsulta daiteke.

¹ Giza eskubideen nazioarteko tratatu gisa 1989ko azaroaren 20an onartuta, Hitzarmenak, 54 artikuluetan, umeak (18 urtez azpiko gizakiak) garapen fisiko, mental eta sozial osoko eskubidea duten banakoak direla aitortzen du, eta eskubidea dutela iritziak askatasunez adierazteko eta ahalmena aitortzen die umei gizarteko eragile aktibo gisa. Hitzarmena, umeen eskubideei buruzko nazioarteko lehen lege gisa, nahitaezkoa da sinatu duten Estatueta-rako. Aplikagarri den gainerako nazioarteko hitzarmen eta araudiekin batera, kolektiboaren eskubideak babesteko testuinguru unibertsala da, eta kolektiboa bistaratzeaz gain, haren babesa eta garapena bermatzen du.

Hurbilketa demografikoa

Euskadiko populazioaren % 16,5ek 18 urte baino gutxiago du. EAEn 360.926 haur (neskak eta mutilak) eta nerabe bizi dira.



18 urte baino gutxiagoko 360.926 haur (neskak eta mutilak) eta nerabe bizi dira EAEn eta Euskadiko populazio guztiaren % 16,49 dira.

Ratioa txikiagoa da Bizkaian (% 15,74) eta zertxobait handiagoa Gipuzkoan (% 17,36) eta Araban (% 17,21). Edonola ere, hiru lurraldeak Estatu mailako batez besteko indizearen azpitik kokatzen dira. Bertan, 18 urte baino gutxiagoko pertsonen taldea gutzizko populazioaren % 17,83 da eta Europako indizea (Europa-28) % 18,77 ingurukoa da*.

2015	18 urte baino gutxiagoko adingabekoen kopurua	% <18 urte gutzizkoarekiko
Bizkaia	180.800	15,74
Gipuzkoa	124.434	17,36
Araba	55.692	17,21
EAE	360.926	16,49

Iturria: EIN. Errolda Jarraituaren Estatistika. 2015

*Iturria: EUROSTAT. Population (Demography, Migration and Projections). 2015

Haurrek eta nerabeek gure autonomia-erkidegoan duten garrantzia xumeak zerikusia du populazioaren zahartzearekin; errealitate hori orokortuta dago Europan, baina areagotuta dago EAEn.

Jaiotze-tasa ‰ 8,71 ingurukoa izateak ere eragiten du; hau da, **2015ean EAeko 1.000 biztanleko 8 jaiotze inguru sortu ziren**; tasa hori, hamar urte lehenago ‰ 9,28koa zen, eta Europan, egun, ‰ 10² ingurukoa da. Gainera, nabarmendu behar da seme-alaba jaiotzean euskaldunen batez besteko adina 31,75 urte ingurukoa dela; aldiz, Espainian, 30,67 urtekoa da, eta Europan, 28,8 urtekoa³.


Datuen arabera, tasa horietako batzuk atzerriko populazioaren faktore konpentsatzaileari esker lortu dira mantentzea (2005ean, haurren eta nerabeen garrantzia % 14,64koa zen EAEn). Emakume atzerritarren artean, jaiotza-tasa gordina ‰ 28,16 ingurukoa da, eta emakume horien artean, lehen seme-alabaren jaiotzaren batez besteko adina 27,69 urte ingurukoa da (aldiz, atzerritarrak ez diren emakumeen artean, batez besteko adina 32,41 urtekoa da).

² Iturria: EIN. Oinarrizko adierazle demografikoak. 2015 eta EUROSTAT. Population (Demography, Migration and Projections). 2015

³ Iturria: EIN. Ugalkortasun-adierazleak. 2015 eta EUROSTAT. Population (Demography, Migration and Projections). 2015

Populazio talde hori hainbat aldagairen arabera banatzeak honako hau ere adierazten du:

- Neskak guztizkoaren %48,55 dira eta garrantzia nahiko orekatuta mantentzen da hainbat adin-tartetan.
- 3 urteko edo gutxiagoko haurrak guztizkoaren % 22,34 dira.



Población menor de 18 años: 2015

Iturria: EIN. Errola Jarraituaren Estatistika. 2015

Orotara, EAEn, atzerritar jatorriko 25.475 haur (neskak eta mutilak) eta nerabe daude². Adin txikiko populazio taldearen artean atzerriko populazioaren proportzioak nabarmen egin du gora azken hamarkadan; 2005ean % 3,89 izatetik 2015ean % 7,06 izatera pasatuz; hala ere, azken urteetan, nolabaiteko beherakada nabaritu da (2014an tasa % 7,34 ingurukoa zen). Distantzia pixkanaka murrizten joan den arren, EAEn tasa ia ehuneko hiru puntu baxuago dago estatu mailan erregistratutakoa baino (% 10,06).

Atzerriko jatorria duten 18 urte baino gutxiagokoen garrantzia handiagoa da Araban (% 10,67) beste bi lurraldeetan baino (% 6,73 Gipuzkoan eta % 6,17 Bizkaian).

EAEko haurren eta nerabeen % 7 atzerritarra da.

Bestalde, argitaratu diren azterketetatik abiatuta, kalkulatu behar dugu EAEn ijito-etniako **16 urte baino gutxiagoko 5.600 adingabeko dau dela**; horrek esan nahiko luke adin horretako egungo populazioaren % 1,72⁴.

⁴ Datuak kontuz hartu behar dira. Ez dago ijitoen etniako pertsona kopurua zenbatzeko aukera eskaintzen duen iturri ofizialik, beraz, "Euskal Autonomia Erkidegoko Ijitoen Herriaren egoera" (2006) txostena hartu dugu erreferentzia nagusi gisa. Bertan, EAEko ijitoen etniako populazioa 14.000 lagun ingurukoa izan daitekeela dator, eta "Espainiako ijitoen komunitatearen diagnostiko soziala" (2011) txostenaren arabera, ijitoen etniako populazioaren % 40 inguru 16 urtez azpikoa da. Guztizkoarekiko duen ehunekoa kalkulatzeko, 2015eko 0 eta 15 urte arteko populazioa hartu dugu erreferentziatzat, EINen Errolda Jarraituaren Estatistika hartuta.

Familia

Adin goiztiarretan familia izan ohi da erreferente nagusia. Haurren eta nerabeen eskubideen defentsan rol nagusia du eta gizarte-kohesioko eta babeseko nukleoa da. Azken urteetan egituran eta funtzioetan aldaketak izan dituen arren, oraindik ere, forma ugarietan, zaintza eta babeserako sinbolo da.


2015ko eskuragarri dauden azken datuekin bat etorriz, EAEn, orotara, 16 urte baino gutxiagoko adingabekoren bat duen 207.415 etxebizitza edo familia dago; Euskadiko etxebizitza % 24 ordezkatzen du. Etxebizitza horietatik 94.882 kasutan 6 urtez beheko populazioa dago (Euskadiko etxebizitza guztien % 11) eta 52.576 kasutan 2 urteko edo gutxiagoko neskek eta mutilak bizi dira (Euskadiko etxebizitza guztien % 6).

Familia-egiturak gero eta anitzagoak dira; hala ere, 16 urte baino gutxiagoko populazioa dagoen familia gehienak ezkontza-harremanetan sortutako bikote-nukleoekin osatzen dira (% 82); beste familia motak gero eta garrantzi handiagoa ari dira hartzen.

16 urtez azpiko biztanleak dauden 207.415 etxe daude Euskadin. Gehienak bikote-harremanean sortutako familia-nukleoak dira, baina guraso bakarreko familien kasua ere gero eta ugariagoa da, baita berriz eratutako familien kasua ere.

Guraso bakar batek osatutako guraso bakarreko familiek eta horien seme-alabek (ezkontza osteko nukleoak izan daitezke, bikotearen kide baten heriotzaren, banaketaren edo dibortzioaren ondorio gisa) guztizkoaren % 13,3 ordezkatzen dute eta nukleo bakarra baino gehiago bizi direnek guztizkoaren % 3,87 osatzen dute.

16 urtez azpiko adintxikikoak dituzten etxe eta familiak: 2015



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Euskadiko Etxe eta Familien inkesta (EEF). 2015

16 urte baino gutxiagoko artetik % 12 guraso bakarreko etxeetan bizi da, gehienetan emakumea buruan dela.

16 urte baino gutxiagoko Euskadiko populazioaren % 11,8 bizi da guraso bakarreko etxebizitzetan; horien artetik, % 87tan emakumea dago buruan. Mota honetako familien garrantzia bikoiztu egin da 2008*.3 urtetik, hau da, guraso bakarreko familietan bizi zen 16 urte baino gutxiagoko populazioak Euskadiko haur eta nerabe guztien % 6 ordezkaten zuenetik.

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxeetako inkesta. 2008

Gainera, mendeko seme-alabak⁵ dituzten etxebizitza nuklearretan berregituratutako familiak gero eta indar handiagoa ari dira hartzen, hau da, bigarren edo ondorengo ezkontza-elkarketaren edo bikote-elkarketaren eraginez. Gaur egun, etxebizitza horien % 3,8 ordezkaten dute eta nukleo nagusia osatzen duen bikotearen kide batekin soilik seme-alaba harreman duten semeak eta alabak bizi daitezke bertan (familia nuklearretako seme-alaben % 2,7k eta familia nuklearretako seme-alabek ez dute seme-alaba harremanik biek)⁶.

Aintzat hartutako beste joeratako bat familien tamainari buruzkoa da. Azken hamaika urteetan, **mendeko seme-alabak dituzten familien batez besteko tamainak** behera egin du 3,97 kideetatik 3,76 kideetara⁷.

11 eta 18 urte arteko EAEko haurrek eta nerabeek, oro har, **familia-harremanekin asebetetze maila altua erakusten dute**; 2014an egindako azken kontsultan, asebetetzeak **10etik 8,5 puntuko** batez besteko puntuazioa lortu du, lau urte lehenago erregistratutakoaren oso kopuru antzekoa⁸.

Euskadin, familia arloko komunikazioak ez dirudi alde handirik duenik Estatu mailan aintzat hartutako errealitatearekin alderatzen baldin badugu. Adin horretako Euskadiko populazioaren % 44,7k (11 eta 18 urte arteko nesken % 42,2 eta mutilen % 47,3) beren arazoez familiarekin hitz egiteko lasaitasun osoa dutela aipatu dute; aldiz, % 5en ustez, ezin du familiarekin arazoez hitz egin⁹.

Arlo horiek hobeto ulertzeko eta oro har familia artean maiztasun handienarekin gertatzen diren harreman motak ezagutzeko, garrantzitsua da familian igarotzen den denborari buruzko pistak eskaintzen dituzten datuetan begirada ezartzea.

⁵ Mendeko haurrak izateak esan nahi du etxean bizi den seme-alabaren batek 18 urte baino gutxiago dituela. Egoera hori izango da, era berean, etxean 18 eta 29 urte arteko eta lanik ez duen seme-alabaren bat bizi denean, edo 30 urte edo gehiago izan eta ezintasunen bat duen seme-alabaren bat etxean bizi denean.

⁶ Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Euskadiko Etxe eta Familien inkesta (EEF). 2015

⁷ Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Euskadiko Etxe eta Familien inkesta (EEF). 2015

⁸ Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

⁹ Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

Familiak, batez ere amek, duela urte batzuk baino denbora gehiago igarotzen dute seme-alabekin hitzetan eta jolasean, baina gora egin dute familia-bizitza eta lan-bizitza bateratzeko zailtasunek.


2014an bildutako datuen arabera, 18 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten Euskadiko populazioaren % 85ek seme-alabekin hitz egiten du eta iritziak partekatzen ditu egunero edo ia egunero. Ohitura hori hedatuagoa dago amen artean (% 89k egiten du hori) aiten artean (% 80) baino eta aurreko urteetan baino nabarmen maizago egiten da (zehazki, 2002an, seme-alabekin maiztasun horrekin hitzen egiten zuen populazioaren ehuneko % 57 ingurukoa zen)*.

*Iturria: Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza. Prospekzio Soziologikoaren Kabinetea. Familia EAEn. 2014

Iturri berberak **adierazten du adingabeko seme-alabak dituzten Euskadiko populazioaren % 64k egunero edo ia egunero jolasten duela seme-alabekin** (amen % 65k eta aiten % 63k), 12 urte lehenago erregistratutakoa baino % 19 puntu altuagoko tasa.

Horrekin guztiarekin, ezin dugu aipatu gabe utzi, gaur egun, oraindik ere, hiru pertsonatik batek ez duela seme-alabekin jolastearen ohitura maiztasunez egiten, nahiz eta jolastea garrantzitsua izan haurren garapenerako, eta jolasaren bidez dibertitzea, ikastea, adieraztea eta ilusioak egitea eskubidetzat hartua dago (*Haurraren Eskubideei buruzko Hitzaurrearen* 31. artikulua).

<18 urteko seme-alabak dituzten euskal herritarrek, eta egunero edo ia egunero hauek egiten dituztenak:



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza. Prospekzio Soziologikoaren Kabinetea. Familia EAEn. 2002-2014

Batez beste, Euskadin lanean ari den populazioak egunean 3,7 ordu eskaintzen dizkio **adingabeko seme-alaben zaintzari**. Datuek adierazten dutenez, etxean adingabeak zaintzearen erantzukizun-banaketa ez da ekitatiboa oraindik ere. Batez bestekoa askoz ere altuagoa da emakumeen artean (4,5 ordu eskaintzen dituzte) gizonezkoen artean baino (2,9 ordu); alde horrek, neurri batean, lan-merkatu bereizketa bertikalarekin eta horizontalarekin izan lezake zerikusia, baita batez bestekoaren gainetik dagoen emakumezkoen enplegu-tasa partzialarekin ere¹⁰.

¹⁰ Iturria: EUSTAT. Laneko bizitzaren, familiako bizitzaren eta bizitza pertsonalaren kontziliazioari buruzko inkesta. 2015

Azken urteetan familiako bizitza eta laneko bizitza bateratzeko gizonaek egindako laguntza-eskaeren igoera moderatua nabari den arren, lana uztearen edo lanaldia murriztearen aukera gehienbat emakumeek hartzen duten aukera da. 2015ean aldeko ebazpena emandako 12 urte baino gutxiagoko seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketen espedienteen eta 3 urte baino gutxiagoko seme-alaben zaintzarako eszedentzien % 92,52 emakumeei zegozkienak izan ziren*.

Seme-alabak zaintzeko lanpostua uztearen edo lanaldia murriztearen aukera batez ere emakumeek hartutako aukera da oraindik ere.

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. 2015

Kontziliazioa, zalantzarik gabe, laneko merkatuaren zati diren eta aldi berean etxean beste batzuen zaintzaren kargu egin behar duten pertsonentzat erronka garrantzitsuenetakoa da. 2010ean, **lanean ari zen populazioaren % 29,6k adierazi zuen zailtasun maila handia duela laneko eta familiako bizitza bateratzeko**, betiere, adingabeko seme-alaben zaintzarekin lotuta; 2015ean ehunekoa % 31,22ra iritsi zen. Gizonen artean, % 34,2k adierazi du zailtasunak dituela eta lanean ari diren emakumeen artean % 28k adierazi du hori.

Familiako bizitza, laneko bizitza eta bizitza pertsonala bateratzeko zailtasunak direla eta, guraso askok seme-alaben zaintza hirugarren pertsona batzuen esku utzi behar izaten dute, eta horrekin erronka berriak ateratzen dira hezkuntza-urratsei dagokienez.

Lanean ari den biztanleriaren 15 urte baino gutxiagoko seme-alabena erdia ez da gurasoen zaintzapean egoten eskola-ordutegitik kanpo, eta gehienera familiartekoren batek ematen die arreta.


Oro har, lanean ari den biztanleriaren 15 urte baino gutxiagoko seme-alabaren eguneroko zaintza, lanaldian zehar eta eskola-ordutegian, ikastetxei eta haurreskolei dagokie. Eskola-ordutegitik kanpo, 2015eko datuen arabera, lanean ari den biztanleriaren 15 urte baino gutxiagoko seme-alabaren % 48,9 ez dituzte gurasoek zaintzen (% 53,0 eta 2 urte arteko haurren kasuan).

Gehienetan (seme-alaba horien % 31,7), diruz ordaindu gabeko familiartekoren edo pertsonaren batek zaindu ohi ditu; beste % 5,1 diru ordaindutako pertsonaren zaintzapean egon ohi da, % 6,8k ikastetxeko egonaldia luzatzen du eta gainerako % 5,3a bakarrik geratu ohi da.

Eskola-ordutegitik kanpo zaintza gurasoen esku egon ohi denean (kasuen % 51,1ean), zaintzaz biak arduratzea da ohikoena (seme-alabaren % 28,1 bi gurasoek zaintzen dituzte), edo ama bakarrik (% 18,5); aldiz, kasuen % 4,4tan soilik hartzen du aitak soilik zaintzaren ardura.

¹¹ Iturria: EUSTAT. Laneko bizitzaren, familiako bizitzaren eta bizitza pertsonalaren kontziliazioari buruzko inkesta. 2015

Lanean ari diren biztanleen 15 urtez azpiko seme-alabak, eskola-ordutegitik



kanpo laneko ordutegian zaintza nork hartzen duen kontuan hartuta: 2015

Iturria: EUSTAT. Laneko bizitzaren, familiako bizitzaren eta bizitza pertsonalaren kontzilioari buruzko inkesta. 2015

Iturri batzuen datuek arazoak antzematen dituzte zenbait etxebizitzatan. Zehazki, iturrietako baten arabera, 15 urte baino gutxiagoko biztanleriaren artean bakardade- edo tristezia-arazoen intzidentzia nabari da, % 0,9koa hain zuzen (15 urte baino gutxiagoko 2.900 adingabekoz ari gara hizketan), lau urte lehenago erregistratutakoa baino tasa zertxobait murriztagoa (2010ean, arazo mota horren intzidentzia-tasa % 1,2koa izan zen)¹².

15 urte baino gutxiagokoen % 1 inguruk bakardade eta tristezia-arazoak dituzte (2.900ek baino gehiagok) eta mendeko seme-alabak dituzten familien % 0,5 inguruk (1.400ek baino gehiagok) aitortu du seme-alabekin harreman txarra dutela

Etxebizitzetako inkesta berrietako batek esandakoaren arabera, seme-alabekiko harreman txarren arazoek mendeko seme-alabak dituzten Euskadiko etxebizitzetan % 0,49ri eragin diezaioke; hau da, 1.400 familiari baino gehiagori, batez ere, guraso bakarreko familietan*.

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Euskadiko Etxe eta Familien inkesta (EEF). 2015

Azkenik, familiei laguntzeko inbertsio publikoaren gaia landu behar da. Gastu publikoko eskuragarri dauden azken datuekin bat etorritik, 2013an, **familia/seme-alaben arabera gizarte-laguntzetan izandako gastuak 449.671.000 eurora egin zuen behera EAEn**; kopuruak hamar urte lehenago

¹² Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika (GZEE). Gizarte Beharren Inkesta (GBI). 2014

erregistratutakoa erraz gainditzen du, 2003an gastua 175.164.000 eurora iritsi zenean; baina **2012koa baino % 7,58 txikiagoa da** (2012an, lurraldekako gastuak banaketa hau izan zuen: 237 milioi Bizkaian, 176 milioi Gipuzkoan eta 73 milioi Araban).

EAE	Gastu publikoa gizarte-laguntzetan familia/semi-alabak funtzioan
2013. urtea:	449.671.000€
2012. urtea:	486.585.000€
2003. urtea:	175.164.000€

Iturria: EUSTAR. Babes Sozialaren kontua. 2003-2012-2013.

Administrazio publikotik familiei babesa emateko kontuan hartu diren estrategia ugarien artean aipatzekoak dira laneko bizitza eta familiakoa bateratzeko laguntza ekonomikoekin lotutakoak eta 2015ean, EAEn **22.796.326 euro** bideratu ziren. 2014an baino 2 milioi inguru gutxiago dira eta 2010ean baino lau gutxiago. **Gainera, joan den urtearekin alderatuta, inbertsio publikoaren % 8,49ko murrizketa gertatu da eta % 16koa duela bost urterekin alderatuta.**

Hala ere, garrantzitsua da kontutan hartzea azken bost urteetan eszendentzien eta lanaldi murrizketengatiko laguntza-eskaeren kopurua %52,22 murriztu dela (termino absolutuetan 2010ean 46.416 espediente izatetik 2015ean 22.177 izatera pasatu dira).

Horrez gain, kontutan hartu behar da Euskadin biltzen dela Espainian ematen diren jaiotzagatiko eta amatasunagatiko laguntza ekonomikoen erdia¹³.

EAE	Gastu publikoa familia-bizitza eta laneko bizitza kontziliatzeko laguntza ekonomikoetan
2015. urtea:	22.796.326€
2014. urtea:	24.910.442€
2010. urtea:	27.143.020€

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. 2010-2014-2015

¹³ Iturria: Red Madre Fundazioa. Espainiako amatasunaren mapa.2016

Osasuna

Haurren *Eskubideei buruzko Konbentzioa* sinatu zuten estatuak konpromisoa dute haur eta nerabeen kolektiboari osasuna ahalik eta maila altuenenean bermatzeko. **24. artikulua** biltzen du hurrek eskubidea dutela mediku-zerbitzuetara eta errehabilitazio-zerbitzuetara sarbidea izateko, eta arreta berezia jartzen du **osasunarekin** lotutako lehen mailako arretarekin zerikusia dutenekin. Estatuaren betebeharra da beharrezko neurriak hartzea, haurren osasunerako kaltegarriak diren ohiko praktikak indargabetzera zuzenduta.

Haurren heriotza-tasa da osasun-sistemen garapen maila neurtzeko erabili izan den adierazleetako bat. 2015eko datuen arabera, EAEn, jaiotzearen 1.000 haurretatik urtebete baino gutxiagoko 2,6 haur hiltzen dira; duela hamar urte, gure autonomia erkidegoan tasa ‰ 2,89koa zen. Egun, Espainiako tasa ‰ 2,84an kokatu da eta 2012an, Europako batez bestekoa ‰ 4,1koa zen*.

**Euskadiko
haurren
heriotza-
tasa (‰ 2,6)
estatuko eta
Europako bano
baxuagoa da**

* Iturria: EIN. Oinarrizko adierazle demografikoak.2005-2015 (Europa 2012ko datuak).

Bestalde, aipatu behar da azken hamarkadatan **adingabekoen heriotza-tasa espezifikoan** jaitsiera nabaritu dela. 1999an talde horretako 1.000 adingabeko bakoitzeko 18 urtez behera 0,39 heriotza gertatu ziren; aldiz, hamabost urte geroago, **2014an, tasa ‰ 0,22 ingurukoa da**¹⁴.

Osasunaz ikuspegi zabalarekin hitz egitean, ez ditugu ahaztu behar gizarte batean ohikoenak diren osasun-arazoak, elikadurari dagokionez biztanleek dituzten ohiturak, kirola, substantzien kontsumoa, sexu-harremanak eta abar.

EAerako 2012ko azken datu eskuragarriekin bat etorriz, **15 urte baino gutxiagoko populazioaren % 13,7k osasun-arazo kronikoren bat du** (mutilen % 15,9k eta nesken % 11,2k), esate baterako, kataratak, gorreria, tiroidea, asma, alergia, minbizia, antsietatea, depresioa, anemia eta abar.¹⁵ Familiako maila sozioekonomikoaren arabera aldeak adierazgarriak dira; izan ere, maila sozioekonomiko baxuena¹⁶ duten familietan bizi direnen artean hamar adingabekotatik hiruk (% 31) arazo kronikoren bat du; aldiz, eragina % 11,6ra murrizten da egoera sozioekonomiko ona dutenen artean¹⁷.

¹⁴ Iturria: EIN. Populazioaren mugimendu naturalak eta Errolda Jarraituaren Estatistika. 1999-2014

¹⁵ Iturria: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritzaren Euskadiko Osasun Inkesta. 2012

¹⁶ Maila sozioekonomikoa erreferentziatzeko pertsonaren okupazioan oinarritzen da. Maila baxuko kategorian sartzen dira kualifikatu gabeko langileak.

¹⁷ Maila sozioekonomikoa erreferentziatzeko pertsonaren okupazioan oinarritzen da. Maila altuko kategorian sartzen dira 10 soldatapeko edo gehiagoko saltokietako zuzendari eta gerenteak eta tradizionalki unibertsitateko lizentziatuekin lotutako profesionalak.

14 urte baino gutxiagoko adingabekoen % 0,24k osasun mentaleko asaldurak ditu (depresioa, antsietatea eta abar). Eta % 2k baino zertxobait gehiagok eguneroko jarduera garatzeko muga kronikoren bat du (aniztasun funtzionala duten 7.150 haur).

Bestalde, 2011ko Osasunaren Inkesta Nazionalaren emaitzek ere adierazi dute 14 urte baino gutxiagoko Euskadiko populazioan osasun mentaleko asalduren (depresioa, antsietatea eta abar) eragina % 0,24 ingurukoa dela; horrek esan nahi du gure autonomia-erkidegoan gaitz horiek eraginda egon daitezkeela 780 haur gutxi gorabehera*.

* Fuente: Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad (MSSSI). Encuesta Nacional de Salud. 2011

Desgaitasunari dagokionez, iraupen luzeko muga gisa ulertuta osasun arazo kroniko mota ororen ondoriozkoa, azken Euskadiko Osasun Inkestaren 18 arabera, EAeko 0 eta 14 urte arteko biztanleriaren % 2,2k jardueraren muga kronikoren bat du eta horrek modu iraunkorren, guztizkoan edo partzialki eragozten dio bere adineko eta sexuko pertsonetan ohikoak diren jarduerak egitea, eta hainbat gauzatarako laguntza behar dute, ikastetxera joateko esate baterako. Aniztasun funtzionala duten 7.150 haur inguruz ari gara hizketan.

Aipatu berri dugun Osasunaren Inkesta Nazionalak indize zehatz bati buruzko informazioa eskaintzen du; horrek **8 eta 14 urte arteko biztanleriaren osasun emozionalarekin** zerikusia duen bizitza-kalitatea neurtzen du (indize honek mugikortasun-arazoak, norbere buruaren zaintza, ohiko jarduerak, mina edo ondoeza eta antsietatea edo depresioa neurtzen ditu). EAeko haur populazioak bizitza-kalitatearekin lotutako goi mailako balioak aurkezten ditu osasun eta ongizate emozionalarekin lotuta, eta haur-osasun adierazle onenak dituzten Europako herrialdeetako antzeko balioak adierazten ditu. 0 eta 100 puntu arteko balioetan (100 izanik puntuaziorik onena), Euskadiko emaitzak **84,94 puntukoak**¹⁹ dira.

Haurren garapena prozesu dinamikoa oso konplexua da eta hainbat faktorek elkarrengaitan dute bertan. 0 eta 6 urte artean izandako edozein aldaketa arriskutsua izan daiteke haurraren garapenerako. Aldaketa horiek arriskua eragiten diote haurrari eta asaldurak 20 eragin diezazkioke adin-tarte horretako haur populazioaren % 10i. Ebidentzia zientifikoak ere agerian jartzen du asaldura horietako batzuk saihestu daitezkeenak direla, besteak zuzen daitezkeenak modu partzian behintzat, eta gehienek ondorio negatiboak ondo landuta edo saiaturik arindu daitezkeela. Saihestera eta ahal den neurrian lantzerako bideratutako esku-hartze multzo honi, asaldura horiei, osasun-, gizarte- eta hezkuntza-ikuspegi orokorretik, Arreta Goiztiarra deitzen zaie.

Txosten hau argitaratu den unean **Arreta Goiztiarreko** zerbitzuen eta baliabideen sare publikoko pertsona erabiltzaileei buruzko datu zehatzetara iristea ezinezkoa den arren, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak sustatuta 2010ean egindako txostenak²¹ kalkulatu zuen **EAeko 0 eta 6 urte arteko 2.000 haurrek eta haien familiak sartu ahal izango luketela urtero** ondoren *Euskal Autonomia Erkidegoan Arreta Goiztiarrean osoko esku-hartzeko 2016ko otsailaren 2ko DEKRETUAN* araututa geratu diren gailuetan.

¹⁸ Iturria: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritzak. Euskadiko Osasun Inkesta. 2012

¹⁹ Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (MSSSI). Osasunaren Inkesta Nazionala. 2011 Osasunarekin zerikusia duen bizitzaren kalitatea neurtzeko, EuroQol: © 2009 EuroQol Group Taldearen jabetzakoa den neurtzeko tresna erabilgarria da. EQ-5D-5L (TM) is a trademark of the EuroQol Group.

²⁰ Gorabehera edo asaldura hauek ari gara: asaldura mugimendu-garapenean; asaldura garapen kognitiboan; asaldura garapen sentzorialean; asaldura hizkuntza-garapenean; garapenaren asaldura orokortua; jokabidearen asaldura; asaldura emozionalak; asaldurak adierazpen somatikoaren garapenean; atzerapen ebolutiboa.

²¹ Euskal Autonomia Erkidegorako Arreta Goiztiarreko Eredua. http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/es/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_escu_inc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/100014c_modelo_atencion_temprana.pdf

Zaugarritasun-egoera berezian aniztasun funtzionala duten haur horiei guztiei arreta eskaintzeak *Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmenean* aitortutako eskubide bat ere biltzen du; hain zuzen ere, **23. artikulua** ezartzen du fisikoki edo mentalki **ezindua den haurrak bizitza duinaz gozatu beharko duela** duintasuna bermatzen dioten, beren buruaren jabe izatera iritsiko den eta haurra komunitatean modu aktiboan parte hartzea bideratuko duten baldintzetan.

Nutrizioa eta osasuna elkarren artean zerikusia duten gaiak diren neurrian, garrantzitsua da elikadurarekin lotuta populazioak dituen ohiturak ezagutzea. Ezin da osasun-egoera bikainean egon nutrizio egokirik izan ezean, eta horrek, aldi berean, elikadura egokia eskatzen du.

Ilido horretatik, zehazki obesitatea da gaur egun mundu mailako kezka handienetako bat. Elikadura hiperkalorikoen kontsumoak gora egin du eta egonean egoteko jarduerak gero eta ohikoagoak dira. Haur-populazioari ere gero eta gehiago eragiten dio eta horrek hainbat ondorio ditu: etorkizuneko obesitate-arrisku handiagoa, desgaitasuna adinez heldua denean, arnasa hartzeko arriskuak, arazo kardiobaskularrak eta abar.

2 eta 17 urte arteko populazioaren ia % 7k obesitatea du; arazo horrek gora egin du azken urteetan eta neurri handiagoan eragiten die mutilei maila sozioekonomiko baxuagoarekin bizi diren familiei.

Azken urteetan gora egin du obesitatea jasaten duten haurren eta nerabeen ehunekoak. Zehazki, 2 eta 17 urte arteko Euskadiko populazioaren % 5,17k zuen obesitatea 2006an, eta 2011n kopurua % 6,97ra arte iritsi zen eta tasa are larriagoa da mutilen artean (% 8,04). Hala eta guztiz ere, gure autonomia-erkidegoko batez bestekoa Estatu mailan erregistratutakoaren azpitik dago oraindik ere (% 9,56)*.

* Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (MSSSI). Osasunaren Inkesta Nazionala. 2011

Oraingoan ere aldeak nabari dira familien maila sozioekonomikoaren arabera. Alde horiek elikadura-jokabide desberdinekin izan lezakete zerikusia, eta azken batean, baliabide gutxieneko etxebizitzetan krisiak jokabide horietan izan lezakeen efektuarekin. Maila sozioekonomiko baxuko Espainiako familietako haurren % 9,1ek obesitatea du; aldez, maila sozioekonomiko altuko familietan bizi direnen artetik % 6,51k du obesitatea.

Bestalde, uste dugu loaren orduak ez direla berreskuratze pasiboko eta garuneko jarduerarik ezekoaldiak; alderantziz, frogatuta dago oso garrantzitsuak direla ikaskuntzak finkatzeko garaian, baita prozesu fisiologiko, psikiko eta intelektual desberdinetan ere. Horregatik, gaiari jarraikortasuna ematearen garrantzian ahaleginduko gara. **11 eta 18 urte arteko Euskadiko haurrek astean zehar batez beste 8,6 orduko loa egiten dute** (Espainian, batez bestekoa 8,2 ingurukoa da); hala ere, batez bestekoak behera egin du adinak gora egin ahala (17 eta 18 urte arteko nerabeek egunean batez beste 7,9 ordu egiten dituzte lo)²².

Elikaduraz eta loaz harago, prebentzio-zaintza handiagoa eskatzen duten ohituren artean, aipatu beharrekoak dira hauek ere: tabakoaren kontsumoa, alkohola eta beste droga batzuk, batez ere horiek gure osasunean duten inpaktuaz harago, beste dimentsio batzuetan ere duten eraginarengatik: aisialdia, hezkuntza eta abar.

²² Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

Behera egin du alkoholaren ohiko kontsumoak, baina jarraitzen du oraindik ere asteburuetako arriskuzko eta gehiegizko kontsumoak. Eskola mailako populazioaren % 31,6ri eragiten dio

Nerabeentzako, substantzien kontsumoaren artetik, alkoholaren kontsumoa da normalizatuen dagoena. 2011ko* azken datu eskuragarriek adierazten dute 12 urte baino gehiagoko unibertsitatez kanpoko eskola mailako populazioaren % 55,3k alkohola kontsumitu ohi duela asteburuetan; duela bost urteko tasa baino % 11,3 baxuagoa da (2006an, talde horretako % 66,6k edaten zuen asteburuetan). Adinak aurrera egin ahala, kontsumoaren prebalentziak ere gora egiten du; 12 eta 13 urte artean % 14,8k kontsumitzen du alkohola eta 16 eta 18 urte artean % 84,8k.

Lehen mozkorraldiaren batez besteko adina 14 urtekoa da eta eskola mailako populazioaren % 31,6 gehiegizko edalea da edo edale arriskutsua da asteburuetan**; azken urteetan kopuru horrek ez du nabarmen behera egin (2006an % 36,3an kokatzen zen).

*Iturria: Droga-mendekotasuneko Deustu Institutua. Drogak eta Ikastetxea VIII. 2011

**Iturri honek eskola mailako populazioaren kontsumoa kalkulatu du eta kategoriatan sailkatzen du edandako edari moten eta kopuruaren arabera, betiere, edariak alkohol maila kontuan hartuta.

Iturri berberen arabera, 12 eta 18 urte arteko lau gaztetatik batek (% 25,3) tabakoa kontsumitzen du maiztasunez*, duela bost urte baino % 2k gehiagok, eta badirudi kontsumoa **zabalduago dagoela nesken artean** (nesken % 26,3k eta mutilen % 24,2k kontsumitzen dute tabakoa).

Kasu honetan, kontsumo-tasak ere desberdinak dira adinaren arabera. Horrela, 12 eta 13 urte artekoen % 7,9k erretzen du, 14 eta 15 urte dituztenen artetik % 25ek; eta 16 eta 18 urte dituztenen artetik % 37,4 dira erretzaileak.

15 eta 16 urte arteko Euskadiko nerabeen % 31k erretzen du maiztasunez; Europako batez bestekoaren gainera dago tasa hori (% 28).

* Ohiko kontsumoa hartzen da kontuan, azken 30 egunetan tabakoa erre duten adingabeen ehunekoa.

Gure tasa ingurukoekin alderatuz, kalkuluen arabera, 15 eta 16 urte arteko Euskadiko nerabeen % 31 inguru da ohiko erretzailea, Europako batez besteko tasa baino % 3 puntu altuagoa (maiztasunez erretzen duen Europako gazteria % 28an kokatzen da).


Bestalde, emaitzen jakinarazten digute 12 eta 18 urte arteko mutilen eta nesken % 28,3k kalamua erre duela azken urtean. Horrek esan nahi du duela bost urte bildutako datuekin alderatuta, badirudiela kontsumoa murriztu egin dela (2006 eta 2001 artean gazteen % 7 inguru gutxiago). Kasu honetan, kontsumo-tasa handiagoa da mutilen artean (% 31,2) nesken artean baino (% 25,1).

Badirudi kalamuaren kontsumoa ere murriztu dela, baina tasa, oraindik ere, Estatuko eta Europako batez bestekoa baino askoz ere altuagoa da.

Adinak gora egin ahala, kontsumoa ere handiagoa da. Horrela, 13 urte dituztenen % 6k eta 17 urte dituztenen % 46,9k kontsumitu du kalamua azken urtean..

Nerabeen artean kalamuaren kontsumoaren Euskadiko tasa Estatukoarena eta Europakoarena baino nabarmen altuagoa da. Zehazki, 15 eta 16 urte arteko Euskadiko nerabeen % 43k kontsumitu dute kalamua azken urtean; Espainian, kontsumo-ehunekoa % 22 ingurukoa da adin talde horretan eta European % 13koa da.

12 urte baino gehiagoko unibertsitatez kanpoko eskola mailako populazioa...



Iturria: Droga-mendekotasuneko Deustu Institutua. Drogak eta Ikastetxea VIII. 2011.

Indar handieneko arriskuzko jokabideen artean, aipatu beharrekoa da baita ere Interneten gehiegizko erabilera eta zorizko jolasen eta apustuen erabilera. Azken horrekin lotuta, 2012ko datuen arabera, **15 eta 34 urte arteko Euskadiko populazioaren % 13,9 zorizko jolasen edo apustuen jokalaria aktibotzat har daiteke**; horrek esan nahi du astean behin gutxienez jokatzen duela edota urtean 500 € edo gehiago gastatzen dituela. % 2,1 gehiegizko jokalaritzat har daiteke²³.

Bestalde, hezkuntza afektibo-sexualak azken urteetan aurrerapen handiak izan dituen arren, zenbait azterketaren arabera, komeniko litzateke gaiari arreta jartzen jarraitzea.

Lehen sexu harreman osoa 15 urterekin izan ohi da batez beste.

2014ko datuen arabera, harreman mota horiek izandako gazteen artean, lehen sexu-harreman osoa izandako batez besteko adina 14,9 urtekoa zen*.

* Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2006-2014

Sexu-harremanak izan dituzten 14 eta 18 urte arteko Euskadiko gazteen % 91,7ren esanetan, antisorgailu metodo segururen bat erabili dute (preserbatiboa eta pilula), 2006an, zortzi urte lehenago erregistratutako ia ehuneko berbera eta egungo Estatuko mailaren gainetik (% 85,5).

²³ Iturria: Eusko Jaurlaritzako Drogamendekotasunaren Zuzendaritza. Euskadi eta Drogak 2012. Gehiegizko jokalaritzat hartzen dira gutxienez astean behin jokatzen dutenak edota urtean 500 € edo gehiago gastatzen dutenak, eta gehiegizko jokoaren Kanadako indizeko 9 galderetatik 1i behintzat baiezkoa ematen diotenak.

Hala eta guztiz ere, 2015ean 15 urte edo gutxiagoko Euskadiko mila haurretatik 1,43 jaiotza izan ziren; jatorri atzerritarreko nesken artean tasa nabarmen altuagoa da (%o 9,51). Nabarmendu beharrekoa da Euskadiko tasa, Estatuko batez bestekoaren azpitik dagoen arren (%o 2,38), ez dirudiela azken urtean murriztu denik (2014an %o 1,37koa izan zen eta 2000. urtean %o 1,38koa*).

EAEn 15 urte edo gutxiagoko 1.000 neskatatik 1,43 jaiotza izaten dira.

*Iturria: EIN. Oinarrizko Adierazle Demografikoak. 2000-2014-2015.

Hezkuntza

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak **28. artikuluan** biltzen du haur orok hezkuntzarako eskubidea duela eta Estatuaren betebeharra dela **Lehen Hezkuntza doakoa eta derrigorrezkoa behintzat bermatzea**, bigarren hezkuntzaren irakaskuntzaren garapena sustatzea eta goi mailako irakaskuntza guztiena irisgarria izan dadin lortzea, eta horretarako, beharrezkoa den kasuan, finantza-laguntza ematearen moduko neurriak hartzea. Era berean, ikastetxeetara modu erregularrean asistentzia sustatzeko, eskola-uztearen tasak murrizteko eta eskola diziiplina zabaltzeko neurriak hartu beharko dira. Haurren duintasuna errespetatu beharko da, gizakia den heinean.

Hezkuntzaren bidez, haur eta nerabeek nortasuna garatzen dute eta gaitasun pertsonal eta sozialak eskuratzen dituzte. Horiek, neurri batean, bizitza helduan aterako zaizkien aukerekin lotuta egongo dira, eta azken batean, hezkuntzak gizartearen garapenean eragin handia duela esan nahi du.



2016/2017 ikasturtean, EAEn kokatutako unibertsitatez kanpoko erregimeneko ikastetxeetan matrikulatutako 351.819 haur eta nerabe daude. 176.476 Bizkaian, 119.987 Gipuzkoan eta 55.356 Araban.

Haur-hezkuntzako ikasleak % 26 dira, lehen hezkuntzako ikasleak % 37, DBHko ikasleak % 23 dira, Batxilergoak % 9 eta oinarrizko lanbide-heziketakoak % 1, eta beste % 4 erdiko mailako lanbide-heziketako ikasleak dira.

2014/2015 ikasturteko datuekin bat etorritik, **Euskadiko emakumezko ikasleak** guztizkoaren **% 47,98** dira eta ia garrantzi berberarekin mantentzen da hezkuntza maila desberdinetan batxilergoan izan ezik; bertan, neskak % 52,22 dira, eta **lanbide-heziketan gutxiengo argian daude** (neskak dira HLPPko ikasleen % 29,45 eta erdiko mailako lanbide heziketako % 35,11).

Unibertsitatez kanpoko erregimeneko ikastetxeetan matrikulatutako ikasleak irakaskuntza mailaren eta emakumezko populazioaren, ikasle atzerritarren eta hezkuntza bereziko ikasleen arabera. EAE. osoak eta %.

	Osoak	%	Emakumezko ikasleen %
Unibertsitatez kanpoko erregimen orokorreko ikastetxeetan matrikulatutako ikasleak	351.819	100,00	47,98
Haur-hezkuntza	90.249	25,65	48,32
Lehen-hezkuntza	129.432	36,79	48,53
Haur/lehen-hezkuntzako hezkuntza berezia	499	0,14	35,11
DBH	81.401	23,14	48,54
DBHko hezkuntza berezia	319	0,09	30,56
Batzilergoa	30.248	8,60	52,22
Oinarrizko LH	4.411	1,25	29,45
Erdiko mailako LH	14.713	4,18	35,11

...

...

	Osoak	%	Emakumezko ikasleen %
Hezkuntza berezia Zereginen ikaskuntza	547	0,16	40,83
Hezkuntza berezia orotara	1.365	0,39	-
Bizkaia	176.476	50,16	51,95
Gipuzkoa	119.987	34,10	47,97
Araba	55.356	15,73	47,76

Iturria: EUSTAT. Eskola Jardueraren Estatistika. 2016/2017 ikasturtearen aurrerapena eta 2014/2015 ikasturteko emakumezko populazioaren datuak.

Bestalde, **hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleak guztizkoaren % 0,39 dira (1365 pertsona)** eta emakumezko ikasleen garrantzia txikiagoa da maila desberdinetan (% 35,11 haur- eta lehen-hezkuntzan, % 30,56 DBHn eta % 40,83 zereginen ikaskuntzan).

Aditu askok eskola inklusiboaren aldeko hautua egiten dute, oztopoak kentzea eta aukerak sortzea lortuko duten laguntzekin, betiere, desgaitasunen bat duten hurrek bizimodu egokia izan dezaten. Gainera, hezkuntza-behar bereziak dituzten adingabekoei ohiko hezkuntza-sistematik arreta emateko erantzuna sustatzen jarraitzeko garrantzia ere nabarmentzen dute; horrela, ikasle mota hori baliabide faltagatik arautu gabeko irakaskuntza-baliabideetara deribatzea saihesten da.

EAEen, **hezkuntza-behar bereziak dituen ikasleen % 84 ohiko ikastetxeetan dago**; Estatuko batez bestekoaren gainera dago tasa hori (% 79,6).

EAE : 2013/2014	%
Ohiko ikastetxeetan txertatutako hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleen ehunekoa behar bereziak dituzten ikasleen guztizkoarekin lotuta	84,0
entzumena	93,7
motorra	84,3
intelektuala	75,6
bisuala	95,4
garapeneko asaldura orokortuak	83,9
jokabideko/nortasuneko asaldura larriak	97,2
gabezia-aniztasuna	38,8

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Unibertsitatez kanpoko Irakaskuntza Estatistika. 2013/2014

Atzerriko jatorriko ikasleen tasa Euskadiko ikasleen **% 7,01ean kokatzen da** (24.391 pertsona). Ikasle horien garrantzia zertxobait handiagoa da erdiko mailako LHn (% 9,5) eta batez ere HLPPn; bertan, matrikulatutako ikasleen % 31,69k jatorri atzerritarra du. Araban tasak % 11 lortu du, eta Bizkaian eta Gipuzkoan % 6,23 eta % 6,35 ingurukoa da hurrenez hurren.

Gainera, kontuan hartu behar da ikastetxe pribatuetan guztizkoarekin lotutako atzerriko ikasleen proportzioa % 4,36ra arte murrizten dela, eta ikastetxe publikoetan % 9,57ra iristen dela.

EAE: 2014/2015 y 2014/2015	%
Peso del alumnado nacido en el extranjero (centros de enseñanza de régimen general no universitario) sobre el total de alumnado	7,01
infantil	6,89
primaria	6,21
ESO	7,35
bachillerato	4,99
alumnado PCPI	31,69
FP grado medio	9,50
educación especial total	12,76
centros públicos	9,57
centros privados	4,36
Bizkaia	6,23
Gipuzkoa	6,35
Araba	11,00

Iturria: EUSTAT. Eskola Jardueraren Estatistika. 2015/2016 ikasturteko datu orokorrak eta 2014/2015 ikasturteko eskola-uzteen datuak.

EAEren bereizgarria da matrikulazio tasa altuak izatea ikastetxe pribatuetan-itunpekoetan. Zehazki, **ikastetxe publikoetako ikasleak guztizkoaren % 50,58 dira**; zertxobait gutxiago Bizkaian (% 48,1) eta zertxobait gehiago Araban (% 57,68). Euskadiko tasa oro Estatuko batez bestekoaren azpitik kokatzen da (% 67,41).

Irakaskuntza mailaren arabera aldeak nabari dira. Ikastetxe pribatuetan, matrikulazioen garrantziak nabarmen egin du gora bigarren hezkuntzatik aurrera.

Hori bai, nabarmendu behar da jatorri atzeritarreko ikasleen banaketak ez duela joera orokorra jarraitzen titular-tasun bateko eta besteko ikastetxeen artean. Ikasle horien % 69,38 ikastetxe publikoetan dago matrikulatuta.

EAE: 2016/2017	%
Ikastetxe publikoetan matrikulatutako ikasleen proportzioa (unibertsitatez kanpoko erregimen orokorreko irakaskuntza) ikasleen guztizkoarekin alderatuta	50,58
Bizkaia	48,10
Gipuzkoa	50,95
Araba	57,68
Espainia	67,41
Haur-hezkuntza	52,21
Lehen-hezkuntza	51,67
Hezkuntza berezia haur/lehen-hezkuntza	28,46
DBH	46,44
DBHko hezkuntza-behar bereziko ikasleak	57,05
Batxilergoa	49,50
Oinarrizko LH	28,63
Erdiko mailako LH	62,88
Hezkuntza berezia. Zereginen ikaskuntza	61,61
Atzeritar jatorrikoa	69,38

Iturria: EUSTAT. Eskola Jardueraren Estatistika. 2016/2017 ikasturtearen aurrerapena, 2014/2015 ikasturteko ikaslearen jatorriaren araberrako desagregazio-datuak izan ezik.

D ereduan ikasten duten Euskadiko ikasleek, hau da, Gaztelania izan ezik beste ikasgai guztiak euskaraz egiten dituztenek, ikasleen **% 68,56 ordezkatzan dute**. Bizkaian tasa batez bestekoa baino zertxobait altuagoa da (% 63,22), Gipuzkoan nabarmen altuagoa (% 83,85) eta Araba da tasa horietatik gehien aldentzen dena, batez bestekoaren azpitik (% 52,43).

B ereduan matrikulatutako ikasleek (eredu elebiduna) ordezkatzan dute % 19,29 eta A ereduan ikasten dute ikasleen % 11,56k (hau da, ikasgai guztiak gaztelaniaz egiten dituztenak, Euskara besteen moduko ikasgaia izanik).

Proporazioak aldatu egiten dira hezkuntza mailaren arabera; horrela, haur- eta lehen-hezkuntzan D ereduko ikasleen tasa % 78,56 eta % 72,91ra arte iristen da hurrenez hurren; aldiz, Batxilergoan, euskara hutsean ikasten ari den ikasleek % 62,15 ordezkatzen dute.

EAE: 2016/2017	%
D eremuan matrikulatutako ikasleen garrantzia (unibertsitatez kanpoko erregimen orokorreko ikastetxeak) ikasleen guztizkoarekin alderatuta	68,56
Bizkaia	63,22
Gipuzkoa	83,85
Araba	52,43
Haur-hezkuntza	78,56
Lehen-hezkuntza	72,91
Hezkuntza berezia haur/lehen-hezkuntza	23,05
DBH	65,87
DBHko hezkuntza-behar bereziko ikasleak	30,09
Batxilergoa	62,15
Oinarrizko LH	1,11
Erdiko mailako LH	20,63
Hezkuntza berezia. Zereginen ikaskuntza	40,40

Iturria: EUSTAT. Eskola Jardueraren Estatistika. 2016/2017 ikasturtearen aurrerapena.

2020rako Europa Estrategiaren lehenetsitako helburuetako bat hezkuntzaren eta prestakuntzaren uzte goiztiarraren tasa % 10en azpitik kokatzea da. Frogatuta dago uzteak ondorio negatiboak eta oso kostu altuak dituztela banakoentzat eta gizarterako, bai lan-merkatuaren ikuspegitik, bai ongizate orokorraren ikuspegitik.

2014ko* datuen arabera, Euskadiko ikasleen % 9,7k modu goiztiarrean uzten ditu ikasketak**; hori dela eta, ez du titulartasunik derrigorrezko hezkuntzaz harago, gizonezko ikasleen % 11,9 eta emakumezko ikasleen % 7,4 dago egoera horretan

Eskola-uzte goiztiarraren tasa % 9,7 ingurukoa da, ia % 12koa mutilen artean. Azken urtean, tasa horrek behera egin du eta 2020rako Europa Estrategiaren helburua lortzea erdietsi du.


*Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistema. 2014

**Uzte goiztiarraren datuak 18 eta 24 urte arteko gazteenak dira, gehienez ere DBHko lehen etapa egin dutenena.

Duela bost urteko datuekin alderatuta, % 14,8an kokatzen zenean, Euskadiko tasan izan den jaitsierak adierazten du euskal autonomia-erkidegoan Europako helburua lortu dela; hala ere, azken urtean, tasa mantendu egin da ia-ia (2013an % 9,9koa izan zen). Estatuko batez bestekoarekiko aldeak (% 20) nabarmena izaten jarraitzen du.

Bereizitako datuek barneko arrailak eta zuzentasunik ezak islatzen dituzte, eta badirudi beste gauza batzuen artean, gurasoen hezkuntza maila faktore eragingarria dela; izan ere, hezkuntza maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta luzeagoa da eskola-ibilbidea. Amaren ikasketak lehen mailakoak edo gutxiagokoak diren ikasleen % 37,5ek utzi dituzte ikasketak modu goiztiarrean, eta amaren ikasketak goi mailakoak diren ikasleen % 4,1i gertatu zaio hori.

Tasa de abandono prematuro (%). CAPV



Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistema. 2014

2012/2013 ikasturtean, ikasleen % 86,4k amaitu zuen DBH amaitzeko adin teorikoan (15 urte). EAEk estatu mailako batez bestekoa gainditzen du eta tasa igo egiten da ikastetxe pribatuetan eta D ereduan ikasitakoaren artean.

Graduazioaren tasa gordinari 17 esker, ikasturte jakin bat hura amaitzeko adin teorikoan gainditzen duten ikasleen ehunekoa ezagut dezakegu. Oro har, datuek erakusten dutenez, hezkuntza maila zenbat eta gorago egon, orduan eta baxuagoa da etapa jakin bat dagokien adinean amaitzen dutenen ehunekoa, eta neska eta mutilen arteko aldeak areagotu egiten da, neskek lortzen dituzte graduazio-tasa altuagoak.

* Iturria: EUSTAT. Eskola Jardueraren Estatistika. 2012/2013
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, graduazioaren tasa gordina honela definitzen da: hezkuntza-etapa hori arrakastaz amaitzen duen ikaslearen (adina edozein izanda ere) eta azken ikasturtea hasteko (15 urte) "adin teorikoan" dagoen guztizko populazioaren arteko harremana.

2012/2013 ikasturtean, ikasleen % 86,4k amaitu zuen derrigorrezko bigarren hezkuntza (DBH) horretarako adin teorikoan (15 urte), azken urteetan erregistratutako antzeko datuak (2011/2012 ikasturtean datua % 83,2koa izan zen) eta estatu mailakoak baino hobeak (% 76,8 2013-2014 ikasturtean²⁴). Ehunekoa altuagoa da emakumezko populazioaren artean (% 90,3).

Horrez gain, ikasleen errendimenduarekin lotuta, PISA txosten ezaguneko* datuak ere aipatu behar dira; izan ere, gaitasun-gako ugari ebaluatuta, herrialde ugarian dauden hezkuntza-emaitzak aztertzen ditu (zientziak, matematika eta irakurmena) 15 urteko ikasleen artean.

EAEko ikasleek PISA 2015 txostenean lortutako emaitzek hiru urte lehenago izandako emaitzekiko nolabaiteko atzerapena gertatu dela adierazten dute. Ebaluatutako hiru kompetentzietan, ELGaren batez besteko maila gainditzen duten aurren, ez dute 2020rako ezarritako Europako helburua betetzen.

²⁴ Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako hezkuntzako zifrak. Estatistikak eta adierazleak. 2014ko edizioa (2011-2012 ikasturtea)


* Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa (PISA) Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (ELGA) sustatutako ebaluazio-proposamena da. Horrelako prospekzio- eta konparazio-azterketak hiru urtean behin egiten dira; bertan, kontinente guztietako 70 herrialdek baino gehiagok parte hartzen dute eta haren helburu nagusia da 15 urteko ikasleak bizitzarako duten prestaketa mailari buruzko informazioa jasotzea. Ezagutzak erabiltzeko eta helduen bizitzako erronkei aurre egiteko gazteek duten prestakuntza, trebakuntza eta gaitasunari buruzko informazioa lortzea da helburua. Hiru gaitasun giltzarri aztertzen dira: zientzia, matematika eta irakurketa.

Txosten horren arabera, 2012an, EAEk ebaluatutako hiru kompetentzietan maila baxuetan edo desegokietan zeuden ikasleen ehunekoa jaitea eta zientzietan eta irakurmenean 2020rako ezarritako Europako helburua lortzea lortu zuen. Maila baxuetan dagoen ikasleen ehunekoa % 15ekoa baino gutxiagokoa izatea ezartzen du helburu horrek.

Dena den, 2015eko txostenaren azken edizioan ikusi dugunez, Euskadiko ikasleen desegokitasun-tasetan nolabaiteko igoera gertatu da eta, ondorioz, gaur egun ez lukete ezarritako helburua beteko. Dena den, gure autonomia-erkidegoak oraindik ere ELGAN hiru kompetentzietan eta Espainian matematikan izandakoaren azpitik dauden mailak biltzen ditu.

Sexuaren arabera, alde garrantzitsuak nabari dira oraindik ere. Mutilek emaitza hobekak dituzte zientzietan eta matematikan, aldiz, irakurmenean nabarmen hobe da nesken artean.

Zientzietako, matematikako eta irakurmeneko PISA proban errendimendu maila baxuan dauden 15 urteko ikasleak. EAE. 2009-2015



Iturria: ISEI-IVEI. /ELGA.
PISA Ikasleak Ebaluatzeko Nazioarteko Programaren Txostena. 2015

la lau ikasletatik bat oso itota sentitzen da eskolako lanarekin.

Gai hori lantzen duten argitaratutako azken inkestetako baten emaitzekin bat etorriz, 11 eta 18 urte arteko populazioaren % 24,5 oso itota edo estresak jota sentitzen da eskolako lanak direla eta*; ehunekoak gora egin du 2006ko aurreko kontsultarekin alderatuta (% 20).

Azken kontsulta honetan ez da alde handirik nabaritu mutilen eta nesken artean, ez eta beste aldagai batzuen arabera ere, ikastetxearen titulartasuna esate baterako.

*Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

EAEn, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan ikastetxe publikoetako ikasleko gastu publikoa **25, 2013an, 9.175 eurora iritsi zen**; 2008an ikasle bakoitzeko gastua 8.838 eurokoa izan zen; hori dela eta, 2013an % 3,7 igo zen gastua. Estatuko batez bestekoa baino askoz ere altuagoa da kopurua, ikasleko 5.231 eurotan kokatzen baita.

EAE	2013	2008
Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan ikastetxe publikoetako ikasle bakoitzeko gastu publikoa	9.175€	8.838€

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.
Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistema. 2008-2013

Bestalde, derrigorrezko irakaskuntzetan, haur-hezkuntzan eta hezkuntza berezian beketara bideratutako zenbatekoa, 2014/2015 ikasturtean, EAEn, 49.715.100 eurotara iritsi zen; kopurua aurreko ikasturtean baino % 2,5 altuagoa izan zen (2013/2014an 48.490.600 euro bideratu ziren).

EAE	2014/2015	2013/2014
Bekak derrigorrezko irakaskuntzetan, haur-hezkuntzan eta hezkuntza berezian	49.715.100€	48.490.600€

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.
Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza Estatistika. 2013/2014 eta 2014/2015.

²⁵ Ikasle bakoitzeko gastu publikoa hezkuntza-sistemako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetan, lanbide-prestakuntza alde batera utzita. Ikasleak lanaldi osoko ikasle gisa hartu dira, nazioarteko estatistikan erabilitako metodologiarekin bat etorriz.

Ongizate materiala

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak **27. artikuluan** biltzen du haur orok garapenerako **bizitza maila egokia** izateko eskubidea duela eta gurasoen oinarrizko erantzukizuna da hori eman ahal izatea. Estatuaren betebeharrak da erantzukizun hori onartua izan dadin neurri egokiak hartzea, eta osterantzean, laguntza materiala eta laguntza-programak eskaini beharko ditu, batez ere, nutrizioarekin, jantziekin eta etxebizitzarekin lotuta.

Gizarte osoak ez du krisiaren eragina berdin jasaten; izan ere, talde ahulenen artean efektu handiagoa du, haurtzaroa eta nerabezaroaren kasuan, esate baterako. Haurrak dira egungo krisiak gehien kaltetu dituen taldeetako bat; izan ere, krisiaren eraginez txirotasunak gora egin du. Inpaktu hori ikustea ez da beti erraza izaten eta haurren orainari ez ezik, etorkizunari ere eragiten dio.

*Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2014ko Inkestaren*²⁶ datuen bidez, sarrera maila kontuan izanda txirotasun-egoerak izateko arriskuan sakon daiteke.

Hortik eratortzen da 15 urte baino gutxiagoko Euskadiko populazioaren % 11,2 (36.437 haur eta nerabe) txirotasun erreala ari dela jasaten*, hau da, oinarrizko betebeharrak asetzeko nahikoa diru-sarrera ez dagoen etxebizitzan bizi da, zehazki, elikadura-gastuekin, etxebizitza, jantziak eta oinetakoekin lotutako beharrak; gainera, egoera hori konpentsatzeko beste ondasunak ere falta ditu. Azken hiru neurketetan, tasa igo egin da etengabe krisia hasi zenetik (2008an % 7,3 ziren txirotasunak eta 2012an % 9,5).

Era berean, 15 urte baino gutxiagoko populazioaren % 17,1 ongizate errealeko gabezia egoeran dago**; azken urteetan tasa horrek ere gora egin du (2008an % 13ri eragiten zion eta 2012an % 14,1i). Horrek esan nahi du 55.331 haur eta nerabe inguruk ez duela epe laburrean gure gizartean esperotako gutxieneko ongizate eta erosotasun mailak mantentzeko beharrezkotzat hartutako ohiko gastuei aurre egiteko nahikoa baliabide ekonomiko, eta baliabide horien gabezia konpentsatzeko bestelako ondasunak ere ez dituzte).

15 urte baino gutxiagokoan % 11 (36.000 baino gehiago) oinarrizko beharrak estali ezin dituzten etxebizitzetan bizi dira.


% 17k gurearen moduko gizartean esperotako ongizate eta erosotasun maila minimoa mantentzeko ez du nahikoa diru-sarrera (55.000k baino gehiagok).

* Mantenu-txirotasunak honako egoera honi egiten dio erreferentzia: behar besteko baliabide ekonomikorik ez izatea epe laburrean oinarrizko beharrak asetzeko, batez ere elikadurari, etxebizitzari, arropari eta oinetakoei lotuta. Txirotasun-arriskuan daude oinarrizko behar horiek asetzeko adierazitako mugetara iristen ez diren diru-sarrerak dituzten pertsonak, familiak edo etxeak. Arazoak edo arrisku-egoerak ez dira modu automatikoan islatzen txirotasunaren benetako bizipenean; hala eta guztiz ere, adierazle honek benetako txirotasun-egoeraren inpaktua neurtzen laguntzen du. Horretarako, populazioaren eguneroko bizitzan ongizate-elementuak behar bezala konpentsatuta ez dauden beharren estaldura eskasa izateko arrisku-egoerak zehazten dira.

**Ongizaterik ez izateari lotutako arazoek erreferentzia egiten diete gizarte jakin batean espero diren gutxieneko ongizate- eta erosotasun-baldintzei eusteko beharrezkoak diren ohiko gastuei epe laburrean aurre egiteko behar besteko baliabide ekonomikorik ez dagoen egoerei. Praktikan aukera ematen dute, gutxieneko baldintzetan behintzat, gizarte horretan ohikoak diren bizimoduan, ohituretan eta jardueretan parte hartzeko. Ongizaterik ez izateko arriskuan daude erreferentzia-aldi jakin batean EAEko etxeek batez beste bereizgarri duten gutxieneko esperantza soziala osatzen duten ongizate mailara iristeko mugen azpiko diru-sarrerak dituzten pertsonak, familiak edo etxeak. Arrisku-egoerak ez dira automatikoki islatzen prekarietatearen benetako bizipenean, baina adierazle honek ongizate-egoera gabezien benetako egoeren inpaktua neurtzen du eta honelako egoerak mugatzen dituzte: populazioaren ohiko bizimoduan ongizatearen elementuek arrisku-egoerak ondo konpentsatzen ez dituztenean.

²⁶ Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Beharren Inkesta. Txirotasunaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta Modulua. 2008-2012-2014

15 urtez azpiko populazioa (%). EAE



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Beharren Inkesta. Txirotasunaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta modulua. 2008-2012-2014

Garrantzitsua da nabarmentzea **bi tasak populazioaren (oro har hartuta) txirotasun-indizeen gainetik kokatzen direla**; haurren txirotasun errealaren tasa populazioa oro har hartuta erregistratutakoa (% 5,9) baino 5,3 puntu altuagoa da eta haurren ongizate errealaren gabezia-tasa orokorrarena baino 5,6 puntu altuagoa da (populazio orokorraren tasa % 11,5 ingurukoa da).

Guraso bakarreko etxebizitza osatzen dutenek txirotasuna jasateko arrisku handiagoa dute.

Hainbat azterketaren arabera, gainera, guraso bakarreko etxebizitzak osatzen dituzten populazioarentzako txirotasun-arriskua handiagoa da* (batez ere, emakumeak buruan direnen kasuan). Etxebizitza mota horretako txirotasun-arriskua % 13,9koa da; aldiz, etxebizitza multzoetako arriskua % 8,2koa da (5,7 puntu baxuagoko tasa). Gogoratu behar dugu EAEn 16 urte baino gutxiagoko 27.000 haur eta nerabe bizi direla etxebizitza mota horretan.

* Mantenu-txirotasunak honako egoera honi egiten dio erreferentzia: behar besteko baliabide ekonomikorik ez izatea epe laburrean oinarrizko beharrak asetzeko, batez ere elikadurari, etxebizitzari, arropari eta oinetakoei lotuta. Txirotasun-arriskuan daude, erabili dugun erreferentzia-aldian oinarrizko behar horiek asetzeko adierazitako mugetara iristen ez diren diru-sarrerak dituzten pertsonak, familiak edo etxeak. Gogoratu behar dugu arazoak edo arrisku-egoerak ez direla automatikoki islatzen txirotasunaren benetako bizipenean.

Batzuetan, Euskadiko familiek, oinarrizko beharrak estaltzearekin zuzenean lotuta ez baldin badaude ere, familiako ongizatea argi eta garbi kaltetuko duen egoerari egin beharko die aurre.

AROE tasa bazterketa-arriskua neurtzeko adierazlea da eta Europa 2020 Estrategiaren Txirotasunaren eta Gizarteratzearen helburuaren partaide da. Adierazle horrek, era berean, hiru adierazle pilatzen ditu:

- txirotasun-arriskua (% 60 kontsumo unitateko sarreraren mediana);
- enplegu-intentsitate baxuko etxebizitzak (bertan, lan egiteko adinean dauden kideek beren guztizko lan-potentzialaren % 20an baino gutxiagoan lan egin zuten);

• eta materialaren pribatutasun larria (Europa mailan ezarritako 9 itemetatik 4 eduki ezin dituzten etxebizitzak²⁷).

Euskadiko 16 urte baino gutxiagokoen % 21,8 gizarte-bazterketa arriskuan dago. Tasa Estatuko eta Europako batez bestekoaren azpitik jarraitzen du, baina nabarmen egin du gora azken urteetan.

EINen *Bizitza Baldintzen Inkestarekin* bat etorri, 2015ean, AROPE tasa hori, EAEn, 16 urte baino gutxiagokoen artean, % 21,8an kokatu da; horrek esan nahi du joan den urtean baino % 3 gehiagoko tasan (% 18,7) eta 2010ean baino ia 8 puntu gorago (% 13,9). Hala eta guztiz ere, egungo tasak erakusten du gure autonomia-erkidegoan Espainian (% 34,4) baino egoera hobea dagoela, eta Europako erdiko mailaren azpitik dago baita ere (% 27,7).*

* Iturria: EIN. *Bizitza Baldintzen Inkesta*. 2010-2014-2015 (Europako azken datuak 2014koak dira).

Zehazki, enpleguaren intentsitateari dagokionez, nabarmendu beharrekoa da iturri berberaren arabera, **EAEko 18 urte baino gutxiagoko populazioaren % 11,8 oso enplegu-intentsitate baxuko etxebizitzetan bizi dela**²⁸. Estatu mailan erregistratutakoaren oso antzeko ehunekoa (% 12); 2010etik (orduan tasa % 3,6koa zen), ehuneko horrek nabarmen egin du gora gure autonomia erkidegoan. Europa mailan, tasa % 9,7 ingurukoa da.

Bestalde, EINen datuek adierazten zutenez, **18 urte baino gutxiagoko Euskadiko populazioaren % 6,7 material pribatutasun edo gabezia larriko etxebizitzetan bizi da**; horrek esan nahi du ezin dituztela 9 item hauetako 4 izan: *ezin dute urtean astebete bada ere oporretara joan; edota ezin dute bi egun behin ere haragia, oilaskoa edo arraina duen otordurik egin; edota ezin dute etxebizitza tenperatura egokian mantendu; edota ezin diete ezusteko gastuei aurre egin; edota etxebizitza nagusiarekin zerikusia duten gastuen ordainketan atzerapenak izan dituzte -hipoteka edo alokairua, gas-ordainagiriak, komunitatea...- edo epeko erostetak azken 12 hilabetetan; edota ezin dute autorik eduki; edota ezin dute telefonorik eduki; edota ezin dute koloretako telegizak izan; edota ezin dute garbigailurik eduki.*

Indize hori 2010ean % 2,7koa izatetik 2015ean % 6,7koa izatera pasatu zen; hala ere, azken urtean, badirudi hazkundeak gelditzeko joera izan duela (2014an Euskadiko tasa % 6,3 ingurukoa izan zen). Espainian, urte horretan bertan, ehunekoa % 9,1era iritsi zen, eta European, 2014an, % 10,7ra iritsi zen.

18 urte baino gutxiagoko populazioarekin bizi diren Euskadiko etxeen % 27 inguruk ezin dio ustekabeko gastuari aurre egin.

Are gehiago, 18 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten Euskadiko etxebizitzetan % 26,6k ez du ezusteko gastuei aurre egiteko gaitasunik, ehunekoa joan den urtekoa baino zertxobait altuagoa da (2014an % 25,2koa izan zen) eta duela bost urte erregistratutakoa baino nabarmen altuagoa (2010ean % 19,5koa izan zen). Tasa Estatuko batez bestekoa baino askoz ere behera kokatzen da; izan ere, 2015ean, Estatuko tasa % 42,3koa zen.

Gainera, argitaratu berri diren beste iturri batzuetako datuek jakinarazten dutenez, **EAEko haurrak eta nerabeak bizi diren familien % 2,27 egoera kaltegarrian dagoen etxebizitzan bizi da** (arazoak mendeko seme-alabak dituzten 6.700 familia ingururi eragiten dio)²⁹.

²⁸ Elkarrizketaren aurreko urtean zehar (diru-sarreraren erreferentzia-aldia), guztizko lan-potentziala baino % 20 gutxiago lan egin zuten lan egiteko adinean dauden kideen etxebizitzak dira. Batetik, etxebizitzako kideak erreferentziazko urtean lanean aritu diren hilabete kopurua kalkulatu da, eta bestetik, teorikoki kide horiek lan egin zezaketen hilabete kopurua (orotara). Ratioa kalkulatu da eta % 20 baino baxuagoa den zehazten da. Aldagai hori ez da aplikatzen 60 urteko eta gehiagoko pertsonen kasuan.

²⁹ Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Euskadiko Etxe eta Familien inkesta (EEF). 2015

Gaur egun, etxebizitza da Euskadiko familien gastu nagusietako bat eta krisiarekin gora egin dute etxebizitza ez ordaintzearen egoerek. Horrek, batzuetan, bahimenduak eta kaleratzeak ekartzen ditu batzuetan. Mendeko seme-alabak dituzten eta kaleratzeko edo hipoteka exekutatzeko prozesuan edo arriskuan dauden etxebizitzaren ehunekoa % 0,44ra igo da; horrek esan nahi du EAEn arazo horrek eragindakoa 1.290 familia baino gehiago daudela*.

EAEn mendeko seme-alabak dituzten 1.200 familia baino gehiago egon daitezke kaleratzeko edo hipoteka exekutatzeko arriskuan edo prozesuan.

* Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Euskadiko Etxe eta Familien inkesta (EEF). 2015

Badirudi EAEn Sarreren Berme Sistema eta Gizarte Zerbitzuen Sistema finkatzeak egungo krisiaren zenbait ondorio arindu ditzakeela baliabiderik ez dutenei gizarteratzen lagunduta eta bizitzako oinarritzko beharrei aurre egiteko baliabide ekonomikoak izateko eskubide subjektiboaren aitortuta. Babes-sistemari esker, EAEn haurren txirotasun-tasei eutsi egin zaie, betiere, Estatu edo Europa mailan erregistratutako mailetara iristea saihestuz.

2015ean, 18 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten 19.237 familiak jaso zuten Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta* (DSBE jasotzen zuten etxebizitza guztien % 27,72 eta gutxi gorabehera** adingabeak dituzten Euskadiko etxebizitzaren % 9k). Zehazki, 18 urte baino gutxiagoko 32.663 haur eta nerabe (gutxi gorabehera, adin horretako Euskadiko populazioaren % 9***) izan ziren laguntza horien onuradunak (18.353 Bizkaian, hau da, lurralde horretan adingabea den populazioaren % 10,15; 8.002 Gipuzkoan, hau da, % 6,43, eta 6.308 Araban, adingabeak populazioaren % 11,33).

Guztira 18 urte baino gutxiagoko 32.663 adingabeak izan ziren DSBEren onuradunak 2015ean.

* Iturria: Lanbide. Euskal Enplegu Zerbitzua. 2014-2015.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta aldizkako eta eskubide subjektiboko prestazio ekonomikoa da, oinarritzko premiei lotutako gastuei zein gizarteratzeko edo laneratzeko prozesu baten ondorio diren gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez duen bizikidetzaren unitate batean integratutako kideei zuzenduta.

**Ehuneko estimazio orientatiboa da eta erreferentzia gisa hartzen du 16 urtez azpiko adingabeak dituzten etxebizitza kopurua, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politika Saileko 2015eko Euskadiko Familia eta Etxebizitzaren (EFE) inkestaren arabera.

*** Ehuneko kalkulatzeko, 18 urte baino gutxiagoko populazioa hartu da erreferentzia gisa, EINen 2015eko Errol-
da Jarraituko Estatistikaren arabera.

Kultura, aisialdia eta denbora libre

Aisialdia oso eremu garrantzitsua da haurren eta nerabeen osoko garapenerako; gainera, bizitza kulturalen parte hartzea modu aktiboan gizarteratzeko modua da. Kasu honetan ere, *Haurren Eskubideei* buruzko Hitzarmenak, **31. artikuluan** biltzen du haurrek atsedenerako eta aisialdirako, **jolaserako** eta bere adinerako egokiak diren jolas-jardueretarako duten **eskubidea**, baita bizitza kulturalen eta arteetan modu askean parte hartzeko ere. Estatuak bizitza kulturalen eta artistikoan guztizko parte hartzea errespetatu eta sustatu beharko dute, bizitza kulturalen, artistikoan, jolaserakoan eta aisialdiarekin lotuta aukera egokiak bultzatuz, berdintasun-baldintzetan.

Nerabeen erdiek antolatutako aisialdiko jardueretan parte hartzen dute (kirola, musika, antzerkia...). Zehazki, % 56k antolatutako kirol-jarduerak praktikatzeko dituzten 4tik ia 3k).

Datuek jakinarazten dutenez, antolatutako izaerako aisialdiko eta astialdiko gero eta jarduera gehiago dago. Horiek adineko pertsona batek zuzenduta eta gainbegiratuta egon ohi dira (eskolaz kanpoko jarduerak, ludotekak eta abar) eta gurasoentzako eremu "seguruak" izan ohi dira.

14 eta 18 urte arteko Espainiako herritarren % 50,5ek antolatutako astialdiko jardueretan parte hartzen du (kirola, musika, antzerkia...) astean bitan edo maizago. Jarduera horiek ohikoagoak izan ohi dira mutilen artean (% 61,8) eta maila txikiagoan ematen dira adinez goragokoen artean (17 eta 18 urte dituztenen artean % 47,7)*.

*Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

Bestalde, gogoan izan behar da hurrek eta nerabeek aisialdiko baliabideetara duten sarbidea familien baliabide ekonomikoaren disponibilitatearekin lotuta dagoela. Ildo horretatik, datuek islatzen dute arraila egon daitekeela haurren sarbidean eta aisialdi-aukeretan. Jarduera mota horietan parte hartzen duten nesken, mutilen eta nerabeen proportzioa nabarmen altuagoa da maila sozioekonomiko altuko familietan bizi direnen artean (% 57,5) maila sozioekonomiko baxua dutenen artean (% 40,1) baino.

Sexuen araberako aldeek zerikusia izan dezakete antolatutako jardueren artean kirol-praktikak duen garrantziarekin. 14 eta 18 urte arteko euskal herritarren % 56k antolatutako kirol-jarduerak praktikatzeko dituzten mutilen artean ehuneko nabarmen altuagoa da (% 74,4) nesken artean baino (% 39,8)³⁰.


11 eta 18 urte arteko 10 euskaldunetatik ia 8k ariketa fisikoa egiten du astialdian astean bitan behintzat (nesken % 69k).

11 eta 18 urte arteko biztanleen artean astean bitan behintzat astialdian ariketa egiten dutenen ehunekoa (modu antolatuan edo antolatu gabe) % 76,9koa da gure autonomia erkidegoan; kopuru horrek bilakaera positiboa izan du azken urteetan (2006an % 58,2koa zen) eta adin talde horretarako Espainiako batez bestekoaren gainetik (nabarmen) kokatu da, % 69,9ko datuaren gainetik, alegia*.

Hala eta guztiz ere, nabarmendu beharrekoa da mutilen eta nesken artean arraila txiki bat dagoela, % 8 ingurukoa, mutilen mesedetarako (nesken % 69,2k egiten du astialdian ariketa fisikoa astean bitan behintzat).

* Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

Actividad física en el tiempo libre al menos 2 veces por semana: escolares no universitarios >12 años. CAPV




Fuente: Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

³⁰ Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

Kirol-praktikaren datuen bilakaera neurri batean positiboa izan bada ere, ezin dugu ahaztu **15 eta 24 urte arteko Euskadiko nerabeen eta gazteen % 16,8k uste duela bere auzoan edo herrian ariketa fisikoa egiteko ez dagoela instalazio egokirik**; Bizkaian, adin horretako herritarren artean, ehuneko altuago batek du iritzi hori (% 19,7)³¹.

Biztanleria gazteenaren artean sedentarismoa saihestearekin lotuta, garrantzitsua da baita ere kontuan hartzea aisialdiko eta astialdiko jardueren artean informazioaren teknologiekin eta komunikazioarekin lotutakoek hartu duten garrantzia.



Euskadiko nerabeek egunean batez beste 2 ordu igarotzen dituzte telebista, bideoak eta abar ikusten, eta ordu eta erdi pantailaren aurrean aparailu elektronikoekin jolasten.

Euskadiko nerabeek egunean batez beste 2,1 ordu ematen dituzte telebista, bideoak (youtube edo antzekoak barne), dvd-ak eta pantailako beste entretenimenduak ikusten, eta egunean 1,4 ordu aparailu elektronikoekin jolasten (jolasak ordenagailuan, bideokontsolak, tableta, smartphonea eta abar).*

* Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

Eskaintako denbora luzeagoa da 15 eta 16 urte dituztenen artean (egunean 2,4 ordu eta 1,8 ordu eskaintzen dituzte jarduera horietan hurrenez hurren). Kontuan izan behar da jarduera horiek, aisialdia igarotzeko modu pasiboa izateaz gain, askotan bakarrik gauzatzen direla.

Aditu batzuek haurren eta nerabeen sare sozialaren pixkanakako murrizketaren, prekarizazioaren eta beren autonomiaren garapen txikiagoa izatearen arriskuaren inguruan gogoeta egin dute. Hori guztia askotan, biztanleria helduaren prebentzio-estrategien ondorioa izan ohi da, segurtasunik ezeko egoera saihestera bideratuta (denbora gutxiago igarotzen dute kalean, harreman gutxiago mantentzen dute beren inguruko pertsonekin...).

Badirudi eskola mailako batzuk eskolaz kanpo lagunekin geratzeko ohitura galtzen ari direla. 2014ko azken datuen arabera, 11 eta 18 urte arteko Euskadiko haurren eta nerabeen % 76,1 lagunekin geratzen da ikastetxetik kanpo asteen behin gutxienez, baina datuen arabera, lautik batek inguruk ez du hori egiten*.

Euskadiko lau haurretatik eta nerabetatik bat ez da lagunekin gelditzen ikastetxetik kanpo.

³¹ Iturria: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Euskadiko Osasun Inkesta. 2012

* Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

Astean behin gutxienez 20:00ak baino lehen ikastetxetik kanpo lagunekin geratzen den populazioari buruzko datua da.

12 urte eta gehiagoko eskola-populazioaren (unibertsitatez kanpokoa) ia % 80k sare sozialak erabiltzen ditu (Tuenti, Facebook, Twitter, Messenger eta abar)

Aurreko datuak eta taldearen artean sare sozialen erabileraren igoera jakinarazten digutenak aztertzen baldin baditugu, ondoriozta dezakegu berdinen taldeekin presentziazkoak ez diren harremanek denbora gehiago hartzen dutela presentziakoek baino.

Espanian erregistratzeko eta sare sozialean profila izateko legezko gutxieneko adina (haurrentzako espezifikoak salbu) 14 urtekoa den arren, gai honi buruzko xehetasun handiagoa eskaintzen duen azterketa baten arabera, 12 urteko eta gehiagoko unibertsitatez kanpoko ikasleen % 79,6k sare sozialak (Tuenti, Facebook, Twitter, Messenger eta abar) erabiltzen ditu astero. Ehunekoa altuagoa da mutilen artean (% 83,7) eta 16 eta 18 urte artean dituztenen artean (% 85,8), baina ezin dugu ahaztu, 12 eta 13 urte artekoen kasuan ere erabileraren % 69,2koa dela.

Informazioaren teknologien eta komunikazioaren garapenari handiari esker, tresna horiek gero eta garrantzitsuagoak dira gure eguneroko bizitzan, eta harremanak izateko eta komunikatzeko moduetan aldaketa garrantzitsuak eragin ditu, batez ere haurren eta nerabeen artean. Talde hori IKTekin oso ohituta dago, beste biztanleria talde bat egon daitekeena baino gehiago.

Hala ere, berdinen taldearekin astialdi presentziala partekatze beste ohituretako bat eta adin-tarte horretako biztanleriaren artean Euskadin azken urteetan gero eta indar handiagoa hartzen ari dena lonjetara joateko ekintza da. 2011ko datuen arabera, 12 urteko eta gehiagoko eskola mailako populazioaren % 20,7 lonjetara joaten da (berera, lagunena...) astero; bost urte lehenago, 2006an, lonjetara joaten zen adin horretako populazioa % 17,2koa zen³².

Astaldiaren erabilerarekin lotuta, interesgarria da baita ere nabarmentzea 13 eta 18 urte arteko Euskadiko biztanleriaren % 76,9ren ustez, gure erkidegoan astialdia igarotzeko leku egokiak daudela (esate baterako: parkeak, dendak, aisialdi-guneak...), Estatuko batez bestekoaren gainetik dagoen kopurua (% 63,8). Hori bai, era berean, datuak adierazten du taldearen % 23 ingururen ustez, hobetzeko marjina badagoela eskuragarri dauden baliabideekin eta ekipamenduekin lotuta³³.

³² Iturria: Droga-mendekotasuneko Deustu Institutua. Drogak eta Ikastetxea VII. 2011.

³³ Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (MSSSI). Health Behaviour in School-aged Children (HBSC). 2014

11 eta 17 urte arteko haurren eta nerabeen % 23k ez du astialdian inoiz edo ia inoiz irakurtzen



Bestalde, arreta jarri behar zaio gazteenek astialdian jarduera kultural jakin batzuetan duten presentzia handiari edo txikiari.

2011ko datuen arabera, inoiz edo ia inoiz liburuak, aldizkariak, komikiak... irakurtzen ez dituen 12 urteko eta gehiagoko eskola mailako populazioaren (unibertsitatez kanpoko) proportzioa (azterketakoa baino harago) % 23,2 aipagarri iritsi da. Hala ere, badi-rudi 2006tik kopuruak nabarmen egin duela behera, % 49,5ean kokatu zenetik*.

* Iturria: Droga-mendekotasuneko Deustu Institutua. Drogak eta Ikastetxea VII. 2011.

Iturri berberak adierazten du 12 urteko eta gehiagoko unibertsitatez kanpoko populazio talde honen baitan, **hilean behin behintzat jarduera kulturalak egiten dituztenak, esate baterako, zinemara, kontzertuetara, museoetara, erakusketatara, antzerkietara eta abarretara joatea, guztizkoaren % 62,2 direla.**

Azkenik, euskalduntzeari dagokionez, nabarmendu beharrekoa da **18 urtekoen eta gutxiagokoen artean, populazioaren % 83,98 dela euskalduna***; Euskadiko populazioaren artean, ratioa orokorrean % 37,24koa da.

10 eta 14 urte arteko populazioaren artean biztanle euskaldunek duten proportzioa	%
Bizkaia	81,2
Gipuzkoa	92,13
Araba	74,59
EAE	83,98

Iturria: Eustat. Biztanleria eta Etxebizitzaren errolda. 2011

*Euskaraz ondo hitz egiten duten pertsonak (ondo irakurri edo idazten duten, zailtasunarekin edo zailtasunik gabe, kontuan hartu gabe).

Haurtzaro zaugarria

Haurren Eskubideen Hitzarmenak, **19. artikuluan**, gurasoen edo zaintzaren arduraduna den beste edozein pertsonaren aldetik emandako **tratu txar modu orotatik haurrak babesteko** betebeharra biltzen du, eta horri dagozkion prebentzio-neurriak eta tratamendu-neurriak ezarri beharko ditu. Era berean, **34. artikuluan** ezartzen da estatuek konpromisoa hartzen dutela haurrak **esplotazioarekin eta sexu-erasoekin** lotutako forma guztien kontra babesteko.

Haurren kontrako tratu txarra lehen mailako gizarte-gaitza da. OMEk aitortzen bat izatearen alde egiten du, ez justizia mailako arazo gisa soilik, baita osasun publikoko arazo gisa ere.

2015ean, Ertzaintzak, EAEn, haurren eta nerabeen kontrako 1.300 eraso inguru erregistratu zituen. Horietatik % 42 familia arloan gertatu ziren (ia 550 eraso).

Urte horretan bertan, 362 haur (neska) eta nerabe genero-indarkeriaren biktima izan ziren. Gehienek familiartekoren baten (% 47,5) edo bikotearen edo bikote ohiaren (% 18,5) eraso jasan zuten.

2015. urtean, Ertzaintzak, gure autonomia erkidegoan, 18 urtez beherako populazioaren kontrako tratu txarren eta sexu-askatasunaren kontrako delituen (biktimizazioak)* 1.299 kasu erregistratu zituen. Kasu horien % 56an biktima neska izan zen eta % 41,8 familia arloan gertatu zen; hau da, erasotzailea biktimaren familia inguruko pertsona izan zen.

Kasu horien artean, urte horretan, genero indarkeriaren biktima izan ziren 18 urtez azpiko 362 emakume** zenbatu ditzakegu: Bikoteak edo bikote ohiak erasotako 67 emakume (% 18,5); familiako kide maskulinoren batek erasotako 172 (% 47,5); eta familia arlotik kanpo sexu-indarkeriaren biktima izan diren 123 (% 33,98).

* Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritzak. Ikasketa eta azterketa dibisioa. 2015

Biktimizazio kopuruari dagokio, hau da, aldi batean zehar pertsonak zilegiak ez diren egitateen xede izan diren kasu guztiak eta horrela geratu direnak erregistratuta. Pertsona berberak biktimizazio bat baino gehiago jaso ditzake. Bi mota bereizten dira: bikote edo bikote ohi harreman batekoa (GI) edo familiartekoa (gurasoa, seme-alabak, anai-arrebak...) (EI) eta gainerakoa (ikasketak, lanekoa, bizilagunen artekoa, aldi behingoa eta abar, edo askotan gertatzen den moduan, biktimaren eta egilearen artean aurretiazko harremanik egon gabe), GI/EI arlotik kanpo. Bi arloetan, aurkeztutako datuetan ez daude sartuta Zigor Kodean aurrez ikusitako arau-hauste penal guztiak, baizik eta "pertsonen kontrako" arau-hausteen kontzeptu zabalaren baitan kontuan har daitezkeenak: Hilketak-delituak edo horren modukoak, abortua, lesioak, askatasuna urratzen dutenak (bahiketa, mehatxuak, bortxak...), tortura eta osotasunaren kontra (ohiko tratu txarrak, irainak eta isekak familia arloan...), gizakien salerosketa, laguntza-betebeharrari uko egitea, bizilekua bortxatzea, ohorearen kontra (kalumniak eta irainak), segurtasun-neurriak eta kautela-neurriak haustea, familia-harremanekin lotutako delituak, sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitua...

** Genero-indarkeria edo emakumeen kontrako indarkeria emakumeen bizitzako testuinguru guztietan (eskola, lana, gizartea, politika, familia eta abar) ageri den indarkeria estrukturala. Hori egiten duten gizonen sufrimendu psikologikoa, sexuala, fisikoa edo morala aprobeztatzen dute eta hainbat baliabide erabiltzen dituzte: fisikoak, ahozkoak, keinuak, elektronikoak edo beste batzuk. Aurkeztutako datuek Ertzaintzak erregistratutako emakumeen kontrako indarkeriari buruzko informazio estatistikoa biltzen dute. Biktima gisa hartzen dira aldi batean zehar legez kontrako penala jasan duten emakumeak. Gizonezkoen egindako indarkeriari buruzkoak dira datuak. Hiru indarkeria mota barne hartzen ditu: bikoteak edo bikotekide ohiak egindako indarkeria; beste familiarteko batzuek egindako indarkeria (aita, semea, anaia...); eta familia arlotik kanpo beste gizonezko batek egindako sexu-indarkeria.

Genero-indarkeriarekin edo emakumeen kontrako indarkeriarekin lotuta, zuzenean erasotutako izan diren hurrez (neskak) gain, biktimatza hartu behar dira baita ere mota horretako indarkeria jasan duten emakumeen seme-alabak; izan ere, askotan ikusi ere egiten ez diren arren, egungo legediak aitortuak ditu.

Espero behar da datozen urteetan seme-alaba horien datuen bilketa eta sistematizazioa gauzatuko dela; hala ere, oraingoz, orientazio-esperientzia gisa balio diezaguke **bikotean tratu txarrak gertatu direlako kaltetutako mendeko seme-alabak dituzten etxebizitza eta familia kopuruak; etxebizitzaren guztizkoaren % 0,17ra iristen da.**³⁴

Ertzaintzak erregistratutako kasuekin lotuta, kontuan hartu behar dira baita ere Haurren kontrako Tratu Txarren susmoen Erregistro Bateratuko datuak. Iturri horrekin bat etorriz, 2014an, EAEn, haurrak babesteko zerbitzuek **haurren kontrako tratu txarrekin lotutako susmoen** (% 68a mutilei dagokiena) **839 kasu jakinarazi zituzten** (joan den urtean baino % 27,9 gutxiago)³⁵.

Bestalde, eskolako elkarbizitzaren eta berdinen arteko tratu txarren inguruan ere gero eta kezka sozial handiagoa nabari da azken urteetan.

Eskuragarri dauden datuen arabera, 2008tik pixkanaka gora egin dute lehen hezkuntzako eta DBHko eskolako tratu txarren kasuek eta ehunekorik altuenak mailarik baxuenetakoei dagozkie. Dena den, txosten espezializatu batzuen arabera, badirudi arlo horretan ikastetxeek kontzientzia, prestakuntza eta informazio handiagoa eskaintzeak eragin dezakeela lehen kontuan hartzen ez ziren jokabide batzuk tratu txarren jokabide gisa aitortzeko, eta horrek kasuen kopurua handitzea ekarri du, baina horrek ez du nahitaz esan nahi kasu errealen bolumena aurreko urteetako baino handiagoa denik.


³⁴ Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Euskadiko Etxe eta Familien inkesta (EEF). 2015

³⁵ Iturria: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (MSSSI). Haurrak Babesteko Neurrien Datu Estatistikoen Buletina. 2013-2014

2012ko datuen arabera, Euskadin, hezkuntza arloan, lehen hezkuntzako ikasleen (3. zikloa) % 21,7ek tratu txarra jasan zuen* berdinen aldetik. Sexuaren arabera ez da alde handirik nabari (nesken % 21ek eta mutilen % 22,3k jasan dute); hala ere, joera handiagoa nabari da jatorriz atzerritarrak diren ikasleen artean (% 27,6k jasan du). Aurreko kontsultan, hiru urte lehenago, indize orokorra % 16,9an kokatu zen.

Bost ikaslelik batek inguruk eskolan nolabaiteko tratu txarra izan dutela esan dute.

Eskolan tratu txarrak jaso dituzten Lehen Hezkuntzako ikasleak...




Iturria: ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarren txostena.2012.

Hona hau hartzen da tratu txartzat:

- mina, beldurra edo larritasuna eragin nahi duen nahita egindako ekintza; harreman asimetrikoan, erasotzailearen eta biktimaren artean botere-desberdintasuna dagoenean;
- gertaera errepikakorra denean;
- eta modu bat baino gehiago har ditzake: tratu txarra jandako pertsonaren aurrean edo aurrean ez dela egindako ekintzak izan daitezke, ahozko bazterkeria bidez egin daiteke, eraso fisikoa edo gizarte-bazterkeria, pertsonaren kontrako zuzeneko ekintzekin edo zeharkako moduan bere objektu pertsonalei edo familiartekoei edo lagunei egindako eraso bidez, mehatxuaren, beldurraren eta abarren bidez egin daiteke.

*"Askotan" edo "sarri" mota orotako tratu txarren (fisikoa, ahozkoa, bazterketa, perteneziei eraso, cyberbullyinga, sexu-erasoa...) hemezortzi edo hemeretzi jokabideetako bat behintzat jasan duen ikasleen ehunekoa adierazten du.

Berdinen arteko tratu txarra eskolan. Lehen Hezkuntzako ikasleak. EAE: 2012



Iturria: ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarren txostena.2012

Ahozko tratu txarra da gehien gertatzen den jarrera (% 15,3); tratu txar fisikoarekiko (% 5,3) alde handi samarrarekin.

Haurren eta nerabeen taldeak IKTen erabileran erakusten duen ezagutzak abantaila handi bat ematen die eta informazioa, prestakuntza eta abar bizkor eta modu eraginkorrean kudeatzeko aukera handiagoak ematen dizkie. Hala ere, garrantzitsua da erabileratik eratorrita gerta daitezkeen arriskuei arreta jartzea.

Lehen hezkuntzako ikasleen % 11k cyberbullyinga jasan zuen 2012an eta ia % 3k molestiak, mehatxuak edo irainak jasan zituen Internet bidez maiz.

Aurreko iturriko datuen arabera, lehen hezkuntzako (3. zikloa) ikasleen % 11,3k jasango zukeen cyberbullying* motaren bat berdinen aldetik kontsultaren aurreko urtean (beti, maiz edo batzuetan) eta mota horretako tratu txarraren gertakari larriak (beti edo maiz)** ikasleen % 2,6ri eragingo lioke. Azterketa egin ondoren, esango genuke cyberbullying kasuaren aurrean gaudela adin txikikoa den pertsona batek bestea izutzen, mehatxatzen, jazartzen, umiliatzen edo molestatzen duenean Internet, telefono mugikor edo beste teknologia telematikoen bidez.

* Esango genuke cyberbullying kasuaren aurrean gaudela adin txikikoa den pertsona batek bestea izutzen, mehatxatzen, jazartzen, umiliatzen edo molestatzen duenean Internet, telefono mugikor edo beste teknologia telematikoen bidez. Intzidentzia orokorrak "beti, sarri eta batzuetan" maiztasunak 6 gaietatik 1ekin behintzat lotuta hartzen ditu aintzat: - SMS, WhatsApp (mugikorrekia), Tuenti, Facebook (o Internet) bidez mezuak bidaltzea mehatxatzeko eta iseka egiteko. Sare sozialetatik kanporatzea, txatetatik kanporatzea. Kideren baten argazkiak, irudiak edo mezuak Internetez edo mugikorrez zabaltzea haren kontra erabiltzeko. Mugikorrarekin grabatu eta zabaltzea, haren kontra erabiltzeko. Mugikorrarekin grabatzea nahi ez duen zerbait egitera behartzeko, mehatxuak tartean direla. Kide baten kontuan sartzea edo haren izenean kontua erabiltzea, adiskideekin arazoak sortuko dizkion mezuak edo irudiak bidaliz.

** Intzidentzia larriak "beti, eta sarri" maiztasunak 6 gaietatik 1ekin behintzat lotuta hartzen ditu aintzat (ikus aurreko oharra).

Era berean, **DBH egin duten ikasleen % 38k adierazi du gelakide batzuen bazterketa-kasuen lekuko izan dela sexu-orientazioarengatik edo eskola arloan neska edo mutila izateagatik.**

Hauen lekukoa izan den DBHko ikasleen ehunekoa	%
Bazterketa-kasua gay izateagatik	23,6
Bazterketa-kasua lesbianatzat hartzeagatik	7,3

Iturria: ISEI-IVEI. Berdinen arteko tratu txarren txostena. 2012.

Eskola arlotik eta berdinen arteko indarkeria mota honetatik harago, aintzat hartu behar da beste bereizkeria mota batzuk ere badaudela. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak, 2. artikuluan, ezartzen du Estatuaren betebeharra dela haurra bereizkeria mota guztietatik babesteko beharrezko neurriak hartzea.

Horri buruzko informazioa biltzen duen azterketa baten arabera, 2014ko datuak kontuan hartuz, jatorri sozialarengatik edo geografikoarengatik, arraza, etnia, kultura, hizkuntza, erlijio edo atzerritar izae-rengatik, 15 urte baino gutxiagoko biztanleriaren % 2k bazterkeria-arazoak ditu*. Lau urte lehenago, adin horretako populazio taldearen gaineko arazo horien gertakaria % 7,2ra iritsi zen.

Bereizkeria-arazoarengatik kalte-tutako 15 urte baino gutxiagoko populazioaren ehunekoak % 7tik % 2ra egin du behera.

*Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzak. Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika. Gizarte Beharren Inkesta. 2014

Bestalde, Familien Topaguneen (Eusko Jaurlaritzak aiten, amen edo zaintza dutenen eskura jartzen dituen eremuak adingabekoak bisita ditzaten edo horiekin trukea egin dezaten, betiere, akordio gabe, arazoekin, tratu txarrekin... familia-nukleoaren haustura-egoeran agindu judiziala dagoenean) erabiltzaileak diren pertsonen datuak zaurgarritasun-egoera berezian dauden haurrei (neskak eta mutila) eta nerabeei dagozkie. **2015ean, 18 urte baino gutxiagoko 1.064 adingabeko artatu zituzten topaguneetan epaileak bideratuta**³⁶.

2015ean, EAEn, 18 urte baino gutxiagoko 2.900 desagertu-ka-su inguru salatu zituzten.

Askotan, gizarteratze-arazoen edo gatazkek desagertzeekin zerikusia izan ohi dute. Datuen arabera urtebetean desagertutako pertsonak neurri handian urte horretan bertan agertzen diren arren, fenomeno horrek goranzko joera duela ikus daiteke. 2015ean, orotara, 18 urte baino gutxiagoko desagertutako 2.904 pertsona erregistratu dira orotara (1.107 Bizkaian, 1.090 Gipuzkoan eta 707 Araban); horrek esan nahi du joan den urtean baino 287 desagertze gehiago izan direla*.


* Iturria: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritzak. Segurtasun Koordinazio Zuzendaritza. 2014-2015

³⁶ Iturria: Justizia Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzak. EAEN Epaileak Bideratutako Familia Topaguneei buruzko Ebaluazio Txostena. 2015

Zeuk Esan Eusko Jaurlaritzako Haurrentzako eta Nerabeentzako Orientazioko, Aholkularitzako eta Informazioko 116111 doakoa eta anonimoa den telefonoan, 2015ean, 509 harreman ezarri ziren³⁷; harremanen % 68,5 arazoren bat zuten eta norbaitekin hitz egin nahi zuten 18 urtez azpiko adingabekoekin, zalantzak zituztenekin edo kezka eragiten zien zerbaiti buruzko orientazioa behar zuten edo lekukoak ziren jazarpen, indarkeria edo beste mota bateko erasoren bati buruz hitz egin nahi zutenekin izan ziren.

Zerbitzu honekin harremanetan jartzen diren adingabekoen % 55,87 neskak dira eta egiten diren kontsulta telematiko gehienak hauekin lotutakoak dira: elkarrizketa eta komunikazioa (% 26); harreman afektibo-sexualak (% 19); ondoez-psikologikoko egoerak (% 11); jarraian datoz berdin arteko jazarpena (% 9); eta berdin arteko harremanak (% 9).

Adin txikikoek Zeuk Esan zerbitzura egindako kontsulta tematikoak. EAE. 2015



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritzak. 2015.

